

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko otsailaren 6a • IV. urtea • 142. zenbakia • DOAN BANATZEKO



MIKEL IRIZAR / IRITZI EMAILEA
"Pentsaezina da Espainian gertatzea Blair-ek izan duen iskanbila BBC katearekin" /7



Goienka2a
 Debagoiendar bat, Goya zinema sarien atarian



OIHANA ELORZA

6.300 ibilgailu egunero autobidean

Zabaldu zutela hilabete igaro denean, 165.767 ibilgailu pasa dira A-1 autobidetik. Uste baino gehiago. Lanegunetan, 6.352, batez beste, horietatik %14,2, astunak. Isaac Loiola Bidelaneko zuzendari nagusiak eman ditu datuok. 07:30etik 08:30era eta 17:30etik 18:30era bitartean egoten da zirkulazio handien, eta TAG zerbitzua jarriko dute lau ordainleketan sortzen diren auto ilarak saihesteko. Lehenengo hilabetean, istripu bat gertatu da, Eitzako tunelaren irteeran. /4

ASTEKO GAIA: AUTODETERMINAZIOA BERBAGAI /2-3

Bergarako deialdiaren ildotik

Ezker abertzaleak bihar aditzera emango du Espainiako Gortetarako hauteskondeei begira bere estrategia zein izango den. Ekitaldia egingo dute Donostian. Bertan, abenduan Bergaran egin zuten proposamenaren ondorengokoak baloratuko dituzte; izan ere, orduan, autodeterminazioa-

ren aldeko alderdi politiko guztiek hauteskundeotara batera joateko dei egin zuen ezker abertzaleak.

Batasunak dio deialdiak ez duela harrera onik izan, baina elkarrizketetan aritu dira, eta erantzunak bihar emango dituzte aditzera. /2-3

Arrasateko anbulatorioa berritzen hasi dira

Arrasaten dagoen Debagoieneko anbulatorioa konpondu egin behar dute, berritu. Hori dela eta, han dauden kontsultak -arrasatearrek ez ezik Debagoieneko beste herrietakoek ere erabiltzen dituztenak- aldameneko ospitalera pasatu dituzte. Oraingoz, zortzi kontsulta aldatu dituzte ospi-

talera: pediatria, barne-medi-kuntza, erreumatologia, anestesia, endokrinologia, kardiologia, ginekologia eta odontologia. Azken kontsulta hori astelehenerik aurrera izango da ospitallean, baina gainontzekoak atzo bertan hasi ziren toki berrian lanean. /4

ARRASATE

Uttillajes Uribesalgok Gasteizera eramane nahi du produkzioa

Uttillajes Uribesalgoko langileak kezkatuta daude etorkizunarekin. Enpresa batzordeak -ELA eta LAB sindikatuak osatutakoa- salatu du enpresako zuzendaritzaren asmoa dela Arrasateko lantegiko produkzioa Gasteizera eramatea. Horrek esan nahi du Arrasateko lantegia itxi egingo dutela, seguru asko. /6

FOCUS GAMA 12.200 EUROTİK AURRERA
 FORD-A EROSI, ETA EZ ORDAINDU EKAINERA ARTE

Horrez gain, hilabete honetan
 FordFocus TDCI 100 ZP 5 ate, 15.400 eurogatik,
 aire girotua, ABS, albotako aire-zakuak, lainotako faroak eta Irrati CDa.

FordFocus TDCI Gozatzeko pentsatuak, irauteko eginak

MUGARRI AUTOAK
 Araba Etorbidea, 2/g
 ARRASATE

LORAMENDI

50%

INTERSPORT® Arrasate

Autodeterminazioa berbagai hauteskundearen atarian

Bergarako proposamenaren bultzatzaileen ekitaldia, bihar

LEIRE KORTABARRIA

Autodeterminazio eskubidea eztabaidagai izan da egunotan. Eta ezker abertzale historikoak ziurtatu du eurek defenditzen duten eskaintza Espainiako hauteskundeetan egongo dela martxoaren 14an, "modu batera edo bestera". Oraindik zehazteko dago zein formula erabiliko duten hori ahalbidetzeko.

Bihar, otsailak 7, ekitaldia egingo dute Donostian, Kursaal, eta abenduan Bergaran hasitako ekimenak jarraipena izango du han. Ekitaldi horren helburua da, hain zuzen, joan den abenduaren 16an ezker abertzale historikoak aditzera eman zuen proposamenaren ondorengoko balorazioa egitea. Gainera, Batasunak hainbat elkarrizketa izan ditu egunotan, eta hilaren 7rako "erantzun guztiak izango ditugu". Hori dela-eta, hauteskundeotarako euren strategiaren berri ere emango dute.

Debagoieneko hainbat kidek diotenez, "abendutik egindako lanaren balorazioa egingo dugu. Hainbat alderdi, elkarte eta eragilerekin harremanak izan ditugu, eta erantzun batzuk jaso ditugu".

"ZATIKETAK ALDE BATERA UTZI"

Bergarako proposamena izenaz egin da ezagun ezker abertzale historikoak egun hartan plazaratu zuen eskaintza. SAko legebiltzarkide Arnaldo Otegi, LAB sindikatuko Rafa Diez eta beste hain-



Ezker abertzaleko garai guztietako kideak elkartu ziren Bergaran proposamena aurkezteko, joan den abenduan.

bat izen esanguratsu egon ziren bertan; tartean, Jose Luis Elkoro Bergarako alkate izandakoa eta HBko militante historikoa. Proposamen haren funtsa honakoa

zen: Euskal Herriaren autodeterminazioaren aldeko alderdi guztiak bat eginda aurkeztea Espainiako Gorteetarako hauteskundeetara, martxoaren 14an.

"Une honetan ez dago jokoan ez gure herriaren koloreak ez eta ereduak ere zein izan behar duen. Euskal Herriaren etorkizuna da zalantzan dagoena", balo-

ratzen zuen ezker abertzaleak abenduko agiri hartan.

"Zatiketak alde batera utzi eta indarrak bildu behar ditugu dagozkigun eskubideak eta bake eszenatokia lortzeko", gaineratzen zuten orduan. Era berean, une hauek "gogorak baina itxaropentsuak" direla esaten zuten, eta onartzen zuten Espainiako hauteskundeak "aukera paregabea" zirela autodeterminazioaren alde lan egiteko. "Ziur gaude urrats hau emanez gero, bakea eta demokrazia askoz ere hurbilago izango ditugula", zioen Batasunak.

Ezker abertzale historikoak dio proposamena "bartzertu" egin dutela hedabideek

Hauteskundeak "aukera paregabea" dira autodeterminazioa bultzatzeko

Oraingoz, deitutako alderdiek ez diote harrera onik egin Bergarako proposamenari



Aretxabaletan... Residencial Beroa

Zure etxe berria **Residencial Beroan** aurkituko duzu. Etxebizitzak, apartamentuak, atikoak, duplexak, zure neurria. Zure familiaren neurria. 1, 2, 3 edo 4 logelakoak. Oraindik ere aukera dezakezu!

Informa zaituz Aretxabaletako bulegoan. Belorrieta Auzoa, 13 (obren aurrean). Tel. 943 711 770



“PROPOSAMEN HISTORIKOA”

Bergarako proposamena “historikotzat” jotzen du ezker abertzaleak, eta salatzen du egin zaion “bazterketa”. Izan ere, Txibertako elkarrizketetatik, 1977an, sekula ez zen horrelako elkarrizketa aukerarik izan ezker abertzalea ere barne zegoela. Abenduko ekitaldia bera ere zeinu historikoz beteta zegoen. Jose Luis Elkoro bergararrak dioen bezala, “Telesforo Monzonen herria zelako, eta Txibertako elkarrizketen oroimenez ere erabaki zen Bergaran egitea”.

Txibertako elkarrizketetan, orduan isilpean zeuden alderdiek bateratasun saiakera egin zuten, baina porrot egin zuen. Bergarako proposamenak, oraingoz, ezezko erantzuna jaso duela onartzen dute Batasunekoek. Salatzen dute “aukera historiko” hau inork aintzat ez hartzea, kontuan izanda ETAK azaldu duen jarrera. Izan ere, hainbat komunikabidetan kaleratutako agiri baten bidez, ETAK esan zuen Bergarako proposamena “ontzat” ematen zuela, eta gaineratzen zuen: “Ekimen hori azken bururaino iristeko beharoko liratekeen neurriak hartu eta behar diren urrats guztiak emateko prestutasun osoa dugu”. Ezker abertzaleko kide batzuek diote: “ETAK ez du hitzez hitz esaten, baina argi dago horrekin zer esan nahi duen”.

BALDINTZAK

Oraingoz, alderdi batek ere ez du proposamena aintzat hartu. Alderdi hauen ustez, nor bere aldetik edo aliantza puntualekin aurkeztea da egokiena. Azpimarratu dute Bergarako proposamenak gainerako alderdion baldintza batzuk ipintzen dizkiela, eta esaten dute alderdi guztiek egon behar dutela zerbituetan amore emateko prest.

Aralar alderdiak ohartarazi du Lizarra-Garazi prozesuan ere ezkutuko lana eta ETAREN alde aurretiko su-etenak egin zutela posible prozesua martxan jartzea, eta hori guztia, gainera, hauteskunde garaitik kanpo geratu zela.

Zer iritzi dute alderdi politikoek eta sindikatuek?

JUAN MARI JUARISTI


EAJ

ETAK su-etenaren hautsi zuenetik, Batasunak badaki lankidetzarako eta bakerako oztopo nagusia ETA dela. Aurreko hauteskundeetan, Batasuna ez zen aurkeztu, edo ez joateko deia egin zuen, eta oraingo proposamenarekin, sekulako inkoherentzia erakusten dute. Horrez gain, EAJren eta lehendakariaren aurka egin dute gogor. Hori guztia dela-eta, proposamenak ez du sinesgarritasunik.

ONINTZA LASA

EA

Proposameneko hainbat alde onargarriak dira: tartean, erabakitzeko eskubidearen aldarrikapena. Baina funtsezko alde batzuetan, gabezia handiak ditu. Eskubide kolektiboak onartzen ditu, baina ez ditu aipatzen gizabanakoon eskubideak. Giza eskubide indibidualon defentsa irmoaren falta igartzen dugu.



Ander Rodriguez (IU-EB).



German Kortabarría (ELA).

PACO GARCIA

PSE-EE

Autodeterminazioaren inguruko beste ekimen bat da, eta guk ez dugu gure burua horrekin identifikatzen. Hortaz, gu ez gara proposamen hori eztabaidatzera sartuko.

ANDER RODRIGUEZ

EZKER BATUA

Euskal gizartearen pluraltasuna aberasgarria da, eta ez dugu uste hainbat alderdik eskaintza bakar batean joatea komenigarria denik. Era berean, autodeterminazioaren ideien inguruan eskaintza politiko oso bat egituratzeari ez deritzogu ondo.

ITZIAR LAMARAIN

PP

Batasuna ez da existitzen; legez kanpo dagoen talde bat da, eta guretzat, proposamen horrek ez du ezertarako kontaktzen.

XABIER SARASUA

ARALAR

Horrelako proposamen batek alde aurreko lan handia eta elkarrizketa asko eskatzen du; komunikabideen bidez egindako proposamenek ez dute normalean elkarlana bilatzen, beste zerbait baizik. Aralar prest agertu da autodeterminazioaren aldeko hautagaitza bateratu baterako, betiere bide politikoaren aldeko apustua eginez eta Euskal Herriaren aniztasuna errekonozituz. Nafarroan ere erakutsi du lehen postuak alde batera uzteko apaltasuna. EAEn beste batzuk dira Euskal Herriaren interesak lehenetsi ez dituztenak.

GERMAN KORTABARRIA

ELA

Ez da alde aurreko lanik egin. ELA autodeterminazioaren inguruko gutxieneko akordio baten alde dago, baina zelan egin behar den ez da gure lana. Hori bai, elkarrizketa eta denbora luzea behar dira.

Nafarroako egoera, gurearekiko oso desberdina

Nafarroa Bai izeneko koalizioan aurkeztuko dira EAJ, EA, Aralar eta Batzarre. Eta ekimen horren oihartzunak entzun ditugu EAeko egoera alderdi batetik zein beste batetik baloratu dutenen ahotan. Hasiara baten, Nafarroako kasua itxaropenerako seinale izango zela bazirudien ere, gurean beste hainbeste gertatzeko, bi erkidegootako egoerak oso desberdinak dira.

Batasunak bere proposamena egin zion plataformari, eurek aukeratutako hautagai bat sartzeko eskatuaz. Oraingoz, ez dute adostasunik lortu, nahiz eta Batasunak “koalizioaren erantzunaren zain” jarraitzen duen edizio hau ixterako momentuan.

Beste alderdi batzuen ustetan, Nafarroan UPN agintean egoteak baldintzatu du hango egoera; izan ere, alderdi abertzaleek abiapuntu bat zuten UPNri aurre egiteko. Gurean, aldiz, agintea EAJren esku egonda, oso zail dirudi alderdi abertzaleek koalizioan aurkeztea.



Uxue Barkos eta Jose Luis Mendoza, Nafarroa bai koalizioko zerrenda-buruak.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



ARRASATE PRESS

Atzo, osteguna, hasi ziren anbulatorioa berriztatzeko lanak

Anbulatorioko kontsulta batzuk ospitalera aldatu dituzte Arrasaten

Atzo hasi ziren berriztatzeko lanak Arrasateko anbulatorioan

OIHANA ELORZA

Arrasateko anbulatorioa berriztatu egingo dute. Hori dela eta han dauden kontsultak ospitalera pasatuko dituzte. Zortzi kontsulta ospitalean hasi dira lanean dagoeneko; erreumatologia, kardiologia, pediatria eta ginekologia, tartean.

Arrasaten dagoen Debagoieneko anbulatorioa konpondu egin behar dute, berriro. Hori dela eta, han dauden kontsultak aldameneko ospitalera pasatu dituzte.

Oraingoan, zortzi kontsulta aldatu dituzte ospitalera: pediatria, barne-medikuntza, erreumatologia, anestesia, endokrinologia, kardiologia, ginekologia eta odontologia. Azken kontsulta hau astelehenera aurrera izango da ospitalean, baina gainontzekoak atzo bertan hasi ziren toki berrian lanean.

Kontsulta horiek ospitale zaharrean egongo dira, bigarren solairuan. Garai batean logelak zeuden han, eta orain, dena txukundu eta prestatu dute kon-

tsultak bertan jartzeko. Oraindik ez dakite berritze lanek zenbat iraungo duten, baina bitartean hantxe egongo dira zortzi zerbitzu horiek.

ARAZORIK EZ

Aldaketak egin dituzten arren, bertara joan behar duenak ez du batere arazorik izango. Bai anbulatorioan bai ospitalean, informazio orriak eta kartelak jarri dituzte. Gainera, sarreraren dauden langileek ere azalpenak emango dizkiote behar duenari.

Ospitalera aldatu dituzten kontsulta horietara joateko, sarrera nagusitik sartu behar da. Ez dago galtzeko biderik. Telefonoa ere bera da. Edozein

Zortzi kontsulta aldameneko ospitalean ari dira lanean dagoeneko, bigarren solairuan

kontsulta egin edo medikuarekin txanda hartu nahi duenak orain arteko telefono zenbaki berera deitu beharko du. Hauxe da: 943 03 58 00/01/02.

Anbulatorioa zaharkitua gelditu da. Berriztatu egin nahi dute, eta lan horiek bukatu arte kontsultak aldameneko ospitalera pasatuko dituzte.

DENA BERRIZTATUKO DUTE

Debagoieneko ospitaleko iturriek esan digutenez, anbulatorio osoa berriztatuko dute. Poliki-poliki egingo dute, eta denbora beharko da dena konpontzeko eta egokitzeko, baina lanak hasi dira dagoeneko.

Oraingoan, zortzi kontsulta pasatu dituzte. Horien ohiko tokiak egokitzen dituztenean, beste zerbitzu batzuk pasatuko dituzte ospitalera; traumatologia zerbitzua, esaterako. Zatika, baina anbulatorio osoa berriztatuko dute. Egokitze horrek denbora behar du, baina lanak bukatzean, zerbitzu guztiak eta eraikina bera guztiz egokitua gotea nahi dute.

Garun kaltea duten gaixoez eguneko zentroa gura dute

Egoitza badute, eta janzteko laguntza behar dute orain

O.E.

Garun kaltea duten gaixoen elkarteak, ATECEK, deialdi berezia egin nahi die ibarreko enpresei zein partikularrei, zabaldu gura duten eguneko zentro hori egokitzen laguntzeko. Egoitza altzariz janzteko laguntza behar dute.

Arrasateko garun kaltea duten gaixoen elkarteak, ATECEK, eguneko zentroa zabaldu gura du. Egoitza dagoeneko badute, baina hortik aurrera ezer gehiagorik ez. Orain, egoitza horretan langile gehiagok egingo du lana, eta altzariz jantzi behar da. Beraz, garun kaltea duten gaixoen elkarteak dei berezia egin nahi die ibarreko enpresei eta partikularrei, behar ez dituzten altzariak eta bulegoko materiala eman diezaieten. Eguneko zentro hori janz-

teko behar dituzten altzariak lortzen laguntzeko deia da, hain zuzen ere.

Bestalde, langileen soldatak ordaintzeko Diputazioarekin hitzarmena sinatzea espero zuten, baina ez dute lortu, eta orain estu dabilta.

Egoitza berria egiteko Kutxak eman zien dirua. Horretaz gain, Euskal Tebistak abenduan egin zuen telemaratoian jasotako dirua ere oso lagungarria izan zaie. Orain arte lortu duten dirua langileei ordaintzeko erabiliko dute, eta ez dute dirurik egoitza janzteko.

Hasiera batean, eguneko zentroa urtarrilean zabaltzeko asmoa bazuten ere, arazo horiek guztiek atzeratu egin dute egitasmoa. Orain, martxoan zabaldu gura dute. Arrasateko garun kaltea duten gaixoen elkarteak, ATECEK, Okendo kalean du egoitza berria.



TAG zerbitzua auto ilarak sahiesteko

Datorren astetik aurrera, TAG zerbitzua erabiltzeko aukera egongo da A-1 autobideko Bergarako irteerako lau ordainleketan. Aurreikusita zuten baino gidari gehiago dabilta A-1 autobidean, eta ordainleketan sortzen diren auto ilarak sahiesteko hartu dute erabakia. Autobidearen lehen hilabetean, gidarien %15,15ek erabili dute TAG zerbitzua, baina gero eta gehiago dira zerbitzu hori eskatzen dutenak. Egunean 5.347 ibilgailu pasatzen dira batez beste, gehienak 07:30etik 08:30era eta 17:30etik 18:30era./O.E.




Eguzkiari aurre egiten diogu inork baino hobeto

Kataide Industrialdea 14 Musakola • ARRASATE • Tel.: 943 79 23 83 Faxa: 943 77 04 45
Mallabierna auzoa 6 • IURRETA • Bizkaia • Tel.: 94 681 76 19

BATZOKIA ARRASATEN

- Eguneko menuak.
Baita zapatuetan ere!
- Karta
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Brabak
- Olagarroa galiziar erara

Iturriotz 41
Tel.: 943 79 85 72

NATUR HOUSE

Dietetika eta Elikadura

KONTSULTA DOHAINIK
Zatoz eta konpromisorik gabe galdetu.

EDURNE ARKAUZ
Dietetika eta Elikaduran Diplomatu

Maalako Errabala 27, behea ARRASATE Tel.: 943.79.04.34

Goieskolak 0-3 zikloa datorren ikasturtean ezarrita egotea gura du

Gaia argitzeko eta irtenbideak bilatzeko eskatzen diete arduradunei

OIHANA ELORZA

Goieskolako ordezkariak prentsaurrekoa egin dute 0-3 urte bitarteko zikloa zein egoeratan dagoen azaltzeko. Herritar guztiendako tratamendu bera eskatzen dute, eta ziklo hau datorren ikasturterako ezarrita egotea gura dute.

Eskaera zehatza egin du Goieskolak prentsaurreko horretan. 0-3 urte bitarteko zikloaren prozesuaren inguruan hitz egin behar dela esan du, eta arduradunak

mahai baten inguruan biltzea eskatu du, gaia argitzeko eta irtenbideak eztabaidatzeko. Bileran horretan egon beharko lukete, batetik, Angeles Iztueta Hezkuntza sailburua eta Aretxabaletako, Arrasateko, Eskoriatzako eta Oñatiko alkateak, eta bestetik, Debagoieneko herri eskoletako zuzendariak.

EGUNGO EGOERA

Hezkuntza Sailak Haurreskolak deitutako Partzuergoa eratu zuen. Horrek esan nahi du Partzuergoak kudeatuko duela zer-

bitzu hori eta udal bakoitzari dagokiola Partzuergoan sartu eta prozesua hastea.

Goieskolak esan du une honetan Antzuolako, Elgetako eta Aramaioko udalek erabaki dutela Partzuergoan sartzea eta prozesuari hasiera ematea, eta gaintzeko udalek ez dutela horren aldeko erabakirik hartu, eta beste proposamen bat jarri dutela mahai gainean.

Horrekin batera, ikastetxe publikoek euren eskaintza osatzeko oztopoak dituztela salatu du Goieskolak.



IKER BARANDIARAN

Arrasateko Herri Eskolako Bedoñabe eraikinean egin zuen prentsaurrekoa.

DEBAGOIENEAN LABUR

Arrasateko udalak eta MUK olioia birziklitzeko ontzi bat diseinatuko dute

Sukaldean erabiltzen den olioaren birziklapena bultzatu nahi du Arrasateko Udalak, eta Mondragon Unibertsitateari laguntza eskatu dio. Asmoa da etxe eta elkarteetan erabiltzen den olio gortzeko ontzi bat diseinatzea eta egitea. Horren proiektua Mondragon Unibertsitatean egingo dute. Arrasateko Udalak ondorengo baldintzak jarri dizkio MUKi: erabiltzeko erraza izatea, birzikla daitezkeen materialekin eginda egotea eta salneurri aproposarekin merkaturatzea. Orain, unibertsitateko industriarako diseinu sailari dagokio ontziaren proiektua egitea. Hango irakasle eta ikasleek urtebete dute proiektua betetzeko.

'Kudeaketa hedatua: e-business eta e-lana' jardunaldiak Oñatiko Unibertsitatean

Mondragon Unibertsitateak eta LKSk *Kudeaketa hedatua: e-business eta e-lana* jardunaldiak antolatu dituzte Oñatiko Unibertsitatean. Jardunaldi horietan, MUK, Ikerlanek eta MSIk enpresetako Extranet eta Intranet aztertu dituzte. Enpresetako kanpo eta barne informazio sistemak aldatzean, kudeaketa sistemak ere aldatu egiten dira, eta horrek eragin zuzena du eguneroko lanean. Hizlarien artean, Glasgowko Unibertsitatean diharduen Kepa Mendibil irakasle bergararra egon da.

Consum kooperatibak Eroski taldea uztea erabaki du, baina izenari eutsiko dio

Valentziako Consum kooperatibak erabakitze ahalmena galdu egin duela esan du, eta horregatik erabaki duela Eroski taldearekin zuten harremana haustea. Urtarrilean hartu zuen erabaki hori baina aste honetan eman du aditzera. Hala ere, Valentziako kooperatibak eutsi egingo die Consum eta Charter markei eta baita han dituen ia 400 supermerkatuei ere. Ondorioz, izen komertzial hori duten Hego Euskal Herriko saltokiek izena aldatuko dute.



Aste bukaera

Aste bukaeran Debagoienez gertatu den guzti-guztiaren berri Asteleheneko Goienkarian.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Nafarroa etorbidea 2
20500 ARRASATE



902 36 38 51



943 79 22 93



astelehenekoa@goiena.com
www.goiena.net

Txinatar jatetxea

**DRAGON
ORIENTAL**



EGUNEKO MENUA

Lehenengo platera
Udaberri-erroiloa entsalada txinatarrarekin.
Vietnamgo erroilo berezia
Eta abar
Bigarren platera
Ku-bak hiru deliziarekin
Arroz-fideo frijitua kanbekin
Eta abar
Hirugarren platera
Ganbak banbuarekin eta perretxiko txinatarrekin
Ahatea labean
Eta abar

Prezioa: **6,95** euro

Edariak:
ardo, ura, garagardoa edo freskagarriak.
Postrea:
platanu frijitua, piña frijitua, izozkia
intxaurrekin. Kafea edo tea.

Araba etorbidea 3 ARRASATE

Goienkaria
ASTELEHENEKO

HARPIDETZA TXARTELA

Izendetarak: _____

Helbidea: _____ Tel.: _____

Herria: _____ Kode postala: _____

Posta elektronikoa: _____

Non jaso nahi duzu? Etxean Kioskoan

Beste nonbait* _____

Harpidedunaren kontu korrontea (20 zenbaki):

□ □

Urteko harpidetza: **25 € / 40** ale urtean

*Herriz kanpoko banaketa kasuz-kasu aztertuko da.

OÑATI

EHNA tramitatzeko bulego iraunkorra egongo da Gazte Bulegoan

Bihartik aurrera, Euskal Herriko Naziotasun Aitorpena tramitatzeko bulego iraunkorra egongo da, zapaturu, Gazte Bulegoan, gaztelekuan. Hain zuzen ere, goizeko 11:00etatik 13:30era egongo da zabalik bulegoa. Bertan, EHNA egiteko informazioaz gainera, behar den azpiegitura eta materiala egongo da. Agiri hori egin nahi duenak ondorengo dokumentazioa eraman beharko du: hiru argazki (atzealde zuri-koak), errolda agiria eta familia liburua (haurrak baldin badira) eta 15 euro, hain zuzen. /OIHANA ELORZA



ARRASATE

Utilajes Uribesalgok Gasteizera eraman nahi du produkzioa

Utilajes Uribesalgoko langileak oso kezkatuta daude etorkizunarekin. Enpresa batzordearen (ELA eta LAB sindikatuak osatutakoa) prentsa ohar batean salatu dute enpresako zuzendaritzaren asmoa dela Arrasateko lantegiko produkzioa Gasteizera eramatea. Horrek esan nahi du Arrasateko lantegia itxi egingo dutela, seguru asko. Salatu dute iaztik dabilzala arazoekin. Eta enpresako zuzendaritzak bideragarritasun plan bat aurkeztu ziela Arrasateko lantegiak aurrera egiteko. Baina plan hori garatzeko langileen %30 murriztu egin beharko litzatekeela, bestela lantegia itxi egin beharko luketela. Gauzak horrela, langileek onartu egin zuten proposamena; baina, orain ikusi dute, esanak esan, Arrasateko lantegiaren eta zenbait langileren etorkizuna kolokan dagoela. /U.M.

ANTZUOLA

Batzarra egingo du AGAk gaur, egubakoitza, Herriko Plazan

Antzuolako Gazte Asanbladak batzar orokorra egingo du gaur, egubakoitza. Herriko Plazan jarri dute hitzordua, 19:30ean.

Orain dela gutxi Udaleko arduradunekin batzarrak egin dute AGAko kideek, eta horren berri eman go dute batzarrean, besteak beste. Gainera, AGAk egingo dako gaztetxearen proiektua edo proposamena ere erakutsiko diete gaurko batzarrean parte hartzen duten gazteei.

Nahi duten gazte guztiei egin diete batzarrean parte hartzeko deialdia. /AINTZANE IRIZAR

ELGETA

Barkamena eskatzeko eskatuko Aralarrek EAJ-EAri

Elgetan egingo duten saihebidetza dela-eta, Udaleko gobernua osatzen duten alderdien artean eztabaida sortu da. Izan ere, Gipuzkoako Batzar Nagusietan Aralarreko batzarkideek eta EAJ-EAK izandako negoziazioei esker, saihebidetza egingo dela esan zuten Elgetako Aralarrekoek, eta EAJ-EAKo zinegotzi taldeak gezurretan ibiltzea leporatu zien. Orain, Aralarreko zinegotziek esan diote EAJ-EAri publikoki barkamena eskatzeko, Aralarreko gezurretan zebilela esateagatik. /I.A.

BERGARA

Aspacek irailerako zabaldu nahi du eguneko zentro berria

Aspacek, Garuneko Elbarritasunen Elkarteak, eguneko zentro berri bat egokitze baimena eskatu zuen Udalean. Behin baimena lortuta, otsailaren zehar hasiko dituzte lanak eta irailerako lokal berriak zerbitzuak eskaintzeko asmoa dute arduradunek.

Ibaiondon izan du egoitza orain arte Aspacek. Baina leku faltak eta jendearen eskari igoerak eraginda, herriaren bertan beste leku batera aldatzeko erabakia hartu dute. Merkatu plazaren parean, Boni Lascurain kalean izango da kokaleku berria, eta lokal egokitze lanetan aurreratu hasiko dira.

Egoitza berriak, guztira, 264 m² izango ditu, egunekoak baino 100m² gehiago. Lokal horretan, erabilera askotariko gela handi bat, komun gehiago, sukaldea eta administrazio kontuetarako bulego bat izango dituzte. Azken horretan fisioterapia gela ere egongo da.

DEBARRO OSOKO GAIXOAK

Orain arte Aspaceko eguneko zentroan 26 lagunen dako tokia egon da, baina egoitza berria jende gehiago hartzeko gertatuko dute: 32, hain zuzen ere. Gainera, kontuan hartu behar da Bergarako zentroak Debarro osoko gaixoak hartzen dituela.

Eguneko zentroak babestutako lantegietara joaterik ez duten garun elbarriek bideratuta daude. Ikasketak sendotzeko eta heldutasunera bideratzeko programak zein lanez moldatzekoak eta errehabilitaziozkoak garatzen dira bertan. /I.A.

Zertzelada

Lokal berriak egungoak baino 100 m² gehiago izango ditu eta guztira, garun elbarritasuna duten 32 gaixok izango dute lekua bertan.

ARAMAIO

Aramaioko astorik zaharrena akabatu egin da, 34 bat urte zituela

Duda barik, inguruan ez da Barajuengo Erdaide base-rik astoaren parekorik egongo. Izan ere, 34 bat urte zituela akabatu da, eta oso ezohikoa da hori, normalean astoek asko jota 25 bat urte hartzen dituzte-eta.

Putxiko da gure protagonista izena. Ganadutarako erosi zuten Erdai- den orain dela 25 urte; bai-

na azken 11-12 urteotan lasai-lasai ibili da Barajuengo bazkaleketan.

Astoaren jabeak, Lourdes Gardokik, kontaktu digunez, *Putxiko*-ren ama ere ez zen edozelakoa. *Massiel* esaten zioten, abeslari espainiarrek *Eurovisión* irabazi zuenean, *Massiel* astoak lehiaketa morda irabazi zituen-eta. /U.M.



Erdaidekoen esanetan zintzoa eta langilea izan da *Putxiko*.

U.M.

ARETXABALETAK

Karidadeko Benta dago Loramendi EEk antolatu duen egitarau berrian

Dagoeneko gertu dauka egitarau Loramendi Euskara Elkarteak datozen hilabetetarako. Lehenengo hitzordua egunean, hilak 12, izango da. Agurtzane Ugalde arrasatearra hurreratuko da, hain zuzen, Tibetean bizikletaz izandako abentura kontatzeri. Diapositibak erakutsita egingo du berba, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

Horrez gain, beste hainbat ekitaldi antolatu dituzte, tartean Jon Maia bertsolariak osatu duen Karidadeko Benta taldearen kontzertua. Otsailaren 27an izango da hori. /M.A.

ESKORIATZA

Gure ibarreko enpresetako euskara hizpide jardunaldietan

Eskoriatzako HUHEZIKO Fakultateak *Enpresetako euskara planen eragileentzako jardunaldiak* egin zituen urtarrilaren 29an. Ehun bat lagunek hartu zuten parte, eta bailarako zenbait enpresetako ordezkariak hartu zuten hitza.

ATERATAKO ONDORIOAK

Eragileen arteko koordinazioa eta bilgune baten beharra aipatu zituzten, batzorde tekniko batena, finantzaketan, metodologian eta tresnetan oro har dagoen masa kritikoa aktibatuan aurrera jarraitzeko. /ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

LEINTZ GATZAGA

Lopez de Gereñu foru diputatua herria gertutik ezagutzen egon zen

Nuria Lopez de Gereñu Landa Inguruaren Garapenerako foru diputatua Gatzagan egon zen urtarrilaren 30ean, egubakoitzean. Kargua hartu zuenetik herrira egindako lehen bisita izan da diputatuarena. Hainbat toki bisitatzeko aprobetxatu zuen: udaletxea, Gatzainuzketa, Gatz Museoa eta Jakion, besteak beste.

Lopez de Gereñu ez zen herria ezagutzen bakarrik egon, Mendi Nekazaritzako Mari Karmen Iturbe berarekin egon zen. /ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

ARTXIBOA

Lehenengo, *Arrasate Press*-en hasi zen artikuluak idazten astero. Hamabost urtez ari da horretan, azken urte eta erdian GOIENKARIAko azken orriko *Piperrautsa* zutabearen. Hain zuzen, hautsak harrotu ditu zutabe horrekin duela gutxi. Euskadi Irratian ere tertulia-kide da *Mezularia* saioan. Baita *Argia*-n azken orriko kolaboratzaile finkoa ere.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Nola bihurtzen da bat iritzi emaile?

Ba, ustekabeen. Betidanik izan dut joera nire iritziak lantzeko, hangoa eta hemengoa entzun ondoren nire ikuspedia garatzeko. Halako batean hasten zara igartzen zure iritzia aintzat hartzen dutela ingurukoek eta, hurrengo, proposatzen badizute *Arrasate Press*-en astero idaztea, bidearen erdia egina dago. Hortik aurrera landu behar da idazkera, eta komeni da hartzea plaza pixka bat, jendearen aurrean txukun samar aritzeko. Gainontzekoak etorri egin zaizkit, erreskadan.

Jarraipen handia egin behar zaio aktualitateari?

Ezinbestekoa da adi egotea baina, aldi berean, ezinezkoa da denetara ailegatzea. Horregatik, derrigorrez egin behar da entresaka, iturri fidagarrienak aukeratu eta hainbat euskarri erabili, prentsa, irratia, eta telebista nahiz sarea. Nik astean hiru egunez erosten dut pare bat egunkari, eta erreparatzen diet analisei eta iritziei. Ia egunero ikusten dut telebistan albistegi bat edo bi, eta irratia autoan entzuten dut. Sarean ere sarri egiten dut sarturtena. Baina ez nuke esango aktualitatearen morroi bizi naizenik.

Edozertaz daki iritzi emaileak?

Ez, ez! Noski, ezin da iritzirik eman erabat ezjakinean. Baina guri ez zaigu horrenbeste eskatzen informazioa, horretarako daude kazetariak. Gure lana gehiago da informazioaren matzari puntak aurkitzea, bistan ez dagoena azaleratzea, hau da, jendea laguntzea bere iritzia lantzen. Italiarrek *tuttologo* esaten diote jarduten duenari edozertaz jakin gabe ezertaz. Arriskua hor dago guretzat ere.

Nola ikusten duzu iritzi emaileen lana Espainian eta Euskal Herrian?

Oro har, uste dut zintzoago ari garela Euskal Herrian Espainian baino, bai edukietan eta bai moldeetan. Hemen nekeza erabiltzen ditugu iraina, gezurra edo sofisma. Espainian aro beltza bizi dute hedabideek, agintearen esanetara makurtuta, jarrera kritikoa ahaztuta eta neurri guztiak galduta. Pentsaezina da Espainian gertatzea Blair-ek izan duen iskanbila BBC telebista publikoarekin. Euskal Herria ez da jauja, baina badaude kolore askotariko hedabideak eta posible da kontrastatzea.

Gustuko duzun iritzi emaile bat?

Betidanik miresten dut Mariano Ferreren zintzotasuna, gure amonak ere gustuko zuen *Perren* duela 30 urte. Aipatuko nuke Mikel Aramendiren jantzitasuna, Jose Mari Pastorren zorrotasuna edo Anjel Lertxundiren finezia. Gazteagoen artean, gogoz jarraitzen ditut Kirmen Uribe, Mikel Elortza eta Amets Arzallus.



ENKO AZKARATE

Mikel Irizar

IRITZI EMAILEA

“Gure lana gehiago da informazioaren matzari puntak aurkitzea, bistan ez dagoena azaleratzea”

IRITZI EMAILEAK

“Pentsaezina da Espainian gertatzea Blair-ek izan duen iskanbila BBC telebista publikoarekin. Euskal Herria ez da jauja, baina badaude kolore askotariko hedabideak”

DEBAGOIENA ETA ADMINISTRAZIOA

“Gure eskualdean ez dago plangintza edo erabaki-gune bateraturik, ezta kudeaketarako tresna egokirik. Hor ikusten dut epe ertaineko erronka”

GOIENKARIA, Euskadi Irratia, Argia, hiruretan diharduzu iritzia ematen. Non gusturago?

Bakoitzak du berea. GOIENKARIAri naiz aspaldien, eta Debagoiena da nire ekosistema, horrek oso erakargarri egiten dit lana. Euskadi Irratikoak errespetu handia ematen du, amak ere esaten dit: “Kontuz zer esaten duzun, edozeinek entzun dezake-eta”. Baina erakargarria ere bada, eta *Mezularia* izarra bihurtu da euskarazko

irratian. *Argia*-koa idazten dut patxadaz, aukera ematen dit sakonago aritzeko gai mardulez. Oraintxe bat galduko banu, falta igarriko nuke.

Irratiko tertulia etxetik egiten duzu. Nola da posible solaskideak ikusi barik?

Hasieran arrotza egiten da, gorputz adierazpena eta keinuak falta dituzu, naturaltasunik ez dago. Gero moldatzen zara, garatzen dituzu ikusmena ez beste zentzuak eta lortzen da nolabaiteko hurbiltasuna.

Hobe litzateke denok mahai bueltan bageunde, baina ez da bideragarri, oso barreiatuak gaude solaskideak.

Zeren arabera aukeratzen dituzu gaiak idazteko?

Baditut nire zaletasunak, Debagoiena eta politika, esaterako. Ibarrean aipatzen ditut bereziki ekimen bateratzaileak, nortasun kolektiboa, antolakuntza komuna. Autogestio-zalea naiz, eta benetan sinesten dut ibar honen etorkizuneari. Eta politikan saiatzen naiz azpimarratzen zubigintza, adiskidetzeta, etorkizun komuna adosteko premia, indarrak metatzeko estrategiak. Energia gehiegi ari gara alferrik gastatzen irteerarik gabeko bidetan, beste kemen batekin ekingo genioke bideari oraingo korapiloa askatuko bagenu!

Astekari honetako, GOIENKARIAko, *Piperrautsa*-k duela aste gutxi hautsak harrotu ditu. Nola ikusi duzu eztabaida?

Kezkatuta. Ez nau mindu nitaz idatzitakoak, baina argi geratu da hezkuntza komunitatean antzinako zauriak ez dardela osatze bidean, urratu txiki batek berehala ateratzen du zornea. Nahikoa izan da gorestea ibarreko autogestioa hezkuntza arloan, arazo mordoa azaleratzeko. Berdin goraipa nezakeen Euskadiko Kutxa, ez da egongo munduan beste banku bat jaio dena Arrasate moduko herri txikian, lankidetzeta sisteman, eta egoitza zentrala jaioterrian duenik. Eredugarria da autogestioaren ikuspuntutik, baina horrek ez du esan nahi banketxe hobia denik besteak baino. (Mikelek Kutxan egiten du lan).

Nire ikuspuntutik, EAEko hezkuntza sistemak badu sortzeko bekatua, hain zuzen, Jaurilaritzak lehengo eskola *estatala* heredatu zueneko. Orduan ezarri izan balu eredu deszentralizatua, hurbileko administrazioak kudeaketan inplikaturik, seguruenik oso erraz egingo zuen bat behetik gora zetorren ikastolen mugimendurekin. Hurbiltze horren faltaz etorri ziren geroko arazoak, eta haien ondorioak ari da jasaten oraindik hezkuntza komunitatea eta gizarte osoa. Ordua da hasteko, hemen ere, zubiak eraikitzen eta borondateak adiskidetzeta. Ezin da egoera hau luzatu, ez da berez konponduko.

MCCko *hooligan* ere deitu dizute...

Hooligan erabiltzen bada zaratsatu edo kirten esateko, ez dut uste hori denik nire ohiko estiloa. Eta adierazi nahi bada zaletasun itsua, bestelakoa da nire jarrera MCCrekiko. Talde kooperatiboa da pisu handiko eragilea ibarrean, eta bateratasunaren aldetik positiboa. Bere gabeziak edo itzalak aipatzeko ez daukat eragozpenik, ez eta grina apartekorik. Tokatzen denean tokatzen da.

Debagoiena *saltzen* diharduzu zutabearen. Zer dela-eta?

Autogestioa eta euskara maite dituenarentzat ekosistema aproposa da ibar hau. Eta uste dut oraindik asko irabaziko duela aurrera egiten duen neurrian kudeaketa bateratuan. Hemen dago egiteko nagusia. Ibarreko gizarte ekimenean eta eragile ekonomikoen aldean, oso atzera dago administrazioa. Ez dago plangintza edo erabaki-gune bateraturik, ezta kudeaketarako tresna egokirik. Hor ikusten dut epe ertaineko erronka.

Azken galdera, gaizto samarra: nola izan daiteke debagoiendar Ormaiztegin jaio eta Elorrion bizi dena?

Hain zuzen, ibarreko herri bati lotua ez egoteak libre uzten nau ibarra hartzeko bere osoan. Broman esan izan dut kanpoan jaiok garela debagoiendarrenak. Edo, bilbotarrak bezala, debagoiendarrak jaio gaitzkeela nahi dugun tokian. Ala ez?

Zabalik

IÑIGO
RAMIREZ
DE OKARIZ

Kultura sortu

Ordezkarik politiko askoren hutsenekin, agintaldi politiko berri honi hasiera eman genionetik, gure bailara, Debagoiena, han eta hemen dituen arazoak aintzat hartuta, medio askoren albiste iturri izan da.

Garraioek, bariante guztiekin (abiadura handiko tren, tranbia, autobusak), sortzen dute batez ere kezka, eta agintaldi berri guztietan gertatzen den bezala, lehen mailako politikarien presentzia ere ez da falta izan bailarako hainbat herritan.

Baina zutabetxo honen aitzakia ez dira eskualdeko arazoak, arazo horiek gestionatzeko urteetan osatuta dagoen Debagoieneko Udal Elkarten Mankomunitatea baizik. Izan ere, edozein debagoiendarri galdetuz gero zer den erakunde hau, ez dakit ez ote zuen gehiengo batek erantzungo: "Zaborrak, traste zaharrak eta pilak biltzeaz arduratzen dena". Eta agian, hori da sorreratik hona Udal Mankomunitateak kanporatu izan duen irudia. Eta hori bada, pena da, horrek esan nahi duela ez dugula jakin izan udal elkargo honi beste proiektio bat ematen.

Bazirudien agintaldi berri hau erakunde honen sendotze garaia izango zela. Izan ere, plan gestioaz gain, iparra markatzeko lain talde sendo bat osatzeko aukera ere kaleratu zen. Hala ere, beldur nago ez ote dugun betikoa egingo; alegia, herri bakoitzak bere proposamen berekoiak bultzatuz, bailarako interes orokorrak bigarren mailan laga.

Kultura sortu izeneko leloa da gero eta gehiago entzuten dena. Eta hori da agian guk, bailara-kide, sortu behar duguna. Nonbaiten sortzekotan, kooperatiben sor lekuan. Mankomunitateaz sinistu beharra dugu, denontzat baliagarriak izango diren zerbitzuak sortu behar ditugu, eta hori lortzeko bide bakarra elkargoan lan egiten jakitea da; hau da, berekoiak diren jarrerak baztertzen eta komunak direnak bultzatzen.

Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu behar dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 71
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com

Aramaiar orain?
(9 urteren buruan hau!)

Duela ia 9 urte ika-mikatxo bat izan genuen *Arrasate Press*-en Aramaioko herritarren izena, jentilizioa, zela eta. Eta uste nuen gauzak garbi geratu zirela orduan. Baina ez, oker nengoen. Azkenaldion harriturik irakurtzen dut behin eta berriz GOIENKARIAn Aramaioko herritarrak izendatzeko *aramaiar* adjektiboa. Joan berri zaigun urteko azaroko eta abenduko GOIENKARIAren zenbakiak begiztatu ditut, eta gutxienez dozena bat bider ikusi dut *aramaiar* pitxi hori. Horra adibide batzuk: *aramaiarren babesa, bi aramaiarrek, Farola Eguna ospatu zuten aramaiarrek, bertsolari aramaiarrek, aramaiarrek irratsaioan, zigor osoa bete beharko du aramaiarrek, aramaiararen baldintzapeko askatasuna, Manex Agirre aramaiarra, aramaiarrek 50 urtean egindako lan oparo eta nekaezina, Floren Untzueta aramaiarrek, Aramaioko Udaltzat Gabon jai zoriontsuak opa dizkizue aramaiar guztioi.*

Hauen ondoan, eta oso oker ez banago, behin bakarrik ikusi dut *aramaioarra*, eta bera Josemari Velez de Mendizabalen *Aramaio eta Arrasate. Historiak lotutako bi herri* liburitik ateratako aipamen batean (Josemarik, eskerrak, liburu horretan beti *aramaioar* edo *aramaioar* idazten du).

Egunotan jaso dudana Bertsolari aldizkariako udazkeneko zenbakian ere *Manex*

Agirre aramaiarra (gure Manex leku guttietan) irakurri dut harriduraz.

Amore eman beharko ote dugu? Ni eztezan nago. Ez dut esango *aramaioar* entzutea ezinezkoa denik (duela hilabete batzuk neuk jasoa diot 86 urteko Arrasateko emakume jator bati), baina bai Aramaion eta bai inguruko herrietan nagusiki esaten dena *aramaioar* da.

Eta orduan zer dela-eta zabaldu da *aramaiar* hori? Argi eta garbi: Euskaltzaindiak hala erabaki zuelako. Euskaltzaindiak bi aukera eman zituen (*aramaiar*, *aramaioar*, ordena honetan), eta badirudi kazetariak lehena aukeratu dutela, eta kitto! Ba, jakin dezatela aukera okerrera egin dutela, funts handirik gabea.

Eta bukatzeko, nire eskaera Euskaltzaindiari (ea euskaltzainen batek, oso edo urgazlek, hau irakurtzen duen!): zuen erabakia zuzendu eta eman ezazue aukera bakartzat *aramaioar* aldaera, horixe baita (ahoz *aramaioar*, jakina) herriak darabilena.

Aspaldiko polemikatxo hartan kritikatu nuen ez zen *aramaiar*, *aramaioar* baizik. Kontu honetan jada aukera handirik ez da geratzen, baina batek jakin beste 9 urte barru zer ikusiko dugun! Edozein modutan, ez nuke ezelan ere gura berriro kontu honekin etortzea. Hala bedi! Eta Urte Barri on aramai(x)oar guztioi!

TXIPI ORMAETXEA
Gasteiz

Bergarako igerilekuez

Orain dela urte gutxira arte, Bergarako igerilekua harro sentiarazteko kirol gunea zela esango nuke. Bergaratik zerbait goraiatzeko eskatuko balidate, "kanpoko igerilekuak" erantzungo nuela nahiko garbi daukat. Orain, berriz, azkeneko urte eta erdiak ikusitakoa ikusita, igerilekuari buruzko gaiek lotsa ez inpotentzia sentiarazten didatela esan behar dut.

Orain dela bi asteko GOIENKARIAn, Bergarako edizioan, irakurritakoarekin harri eta zur geratu nintzen. Han idatzitakoaren arabera, "Udala da interesatuena honekin lehenbailehen hasteko". Esan beharra daukat ni ez natorrela bat horrekin, ez baitut uste iazko eta aurtengo bazkide kutekin dirua galtzen egongo direnik. 2001. urtean (igerilekua urte osoan zabalik egon zen azken urtea), 11.360 pezeta ordaindu

nituen eta gaur egun bazkide egin nahi badut, 94,7 euro (15.756 pezeta) ordaindu beharko ditut. Gaur egun ematen diguten zerbitzuak eta eduki behar duten mantentua askoz txikiagoak direla kontuan izanik, bidezkoa ez dela esango nuke.

Bestalde, igerilekuaren tamainarekin ere kezkatuta nago. Herriak 50 metroko igerilekua nahi duela argi geratu da, sinadura bilketan ehunka sinadura batu ostean, baina ez dirudi kasu handirik egin zaionik.

Honek guztiak harritu egiten nau, baina inpotentzia sentiarazten didana zera da: 2002ko irailean itxi zizkiguten igerilekuak eta honek berehala astekoak zirela esan ziguten. Gero, 2003ko urtarrilean, urte bereko maiatzean hasiko zirela agindu zigun alkateak berak. Orain, berriz, 2004ko martxorako agindu digute. Hasiko dira? Urte eta erdiko atzerapen lanekin hasi aurretik, Guinness liburuan sartzeko modukoa.

Baina orain dator harrigarriena: GOIENKARIAk zioenez, "aurten 300 milioi pezeta inguru inbertituko dira lanekin hasteko eta diru hori Ibaragarain egingo diren etxebizitzaren terrenoen salmentarekin lortuko du Udalak". Honen aurrean hauek dira nire galderak: lursail horiek salduko ez balira, zer gertatuko zen kirol gunea erakitzeko proiektuarekin?; zer gertatuko da lursail horretan erakitzeko zen auditorio eta abarrekin?; noizko dira Diputazioko dirulaguntzak?; badirudi kirol gunea egiteko dirurik ez dagoela, horregatik egon da urte eta erdian proiektua geldituta?; herriari gezurretan ibili zarete 2002ko irailetik?; zer gertatuko da 300 milioi hauek amaitzen direnean? Beste lursail batzuk saldu arte itxoin beharko dugu?

X. GARITANO
Bergara


Zuzenketa

Joan zen asteko zenbakian, sail honetan, gutun bat argitaratu genuen *Lan egutegiaren gogoeta* izenburukoa eta Bergarako LAB sindikatuak sinatua. Ez izenburuan eta ezta testuan aipatzen ez bazen ere, Bergarako Aceralia enpresako lan egutegiaren ziharduten LABekoek.

GOIENKARIA

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Kolaborazioa

Liburu bat dauka abiapuntu Josemari Velez de Mendizabalek oraingoan. Hain justu ere, arrasatear batek idatzi duen *Juventudes Viatoristas* izenburuko liburua. Zehaz-

kiago esanda, liburu horretan aipatzen den Clemente Lopez-Cano du mintzagai artikulu honen egileak eta Clemente Lopez-Cano horren izena defendatzea du helburu. *Juventudes*

Viatoristas liburuan esaten denaren kontra, Velez de Mendizabalek dio, besteak beste, ez zaiola Lopez-Canori arrasatear hezkuntza-sistemaren alde egin zuena inoiz errekonozitu.

'JUVENTUDES VIATORISTAS'

60ko hamarkadan, Arrasateko hezkuntza-sistemaren alde lan egin zuen Clemente Lopez-Canoren gainean

Irakurri berri dut *Juventudes Viatoristas* titulua- rekin arrasatear batek argitaratu duen liburua eta egileak darabiltzan zenbait baieztapenek zeharo txundituta utzi nautela aitortu behar dut. Ez noa epaitzera liburuaren estiloa eta orrialdeetan nagusi diren iritzi subjektiboak. Denok dugu eskubidea geure sentimenduak azalarazteko eta errealtatea da batzuegan bizirik dirauten bitartean beste batzuentzat aspaldi hila daudela, eta gainerakoe- tan, agian, ez ziren inoiz jai- o.



JOSEMARI
VELEZ DE MENDIZABAL
Eusko Ikaskuntzako gerentea

Nire txundipenaren arrazoa, batez ere, garai hartan Arrasateetik -egileak iragan mendeko 60etako urteak aurkezten ditu- igaro den gizonik interesgarriene- tako baten gainean eskain- tzen zaizkigun balorazioen esparrutik dator. Eta lerro hauek izkiriartzera jarri naiz, hain zuzen irakasle izan nuen Clemente Lopez- Canoren izena defendatzeko asmoz. Beste behin ere -oker ez banago 2002ko Sanjuane- tarako prestatuta- egunkari batean azaldu nituen viatorista horren gaineko erreferentziak eta nire iritzi partikularrak. Ene ustez, ez zaio Lopez-Canori arrasatear hezkuntza-sistemaren alde egin zuena inoiz errekonozitu. Baina, noski, hori ere nire ikuspegia da, soilik.

Clemente Lopez-Cano ez zen edozein gertatu gure bizitzan. Berari esker izan ez balitz, auskalo non egongo ginen gutariko asko, liburu horren egilea barne! Lopez-

Cano izan zen, Arrasatera 1960an iritsi bezain laster, herriko ohiko irakaskuntza prozesuarekin eteteko adore izan zuena, eta ordura arte formazio profesionaletik soilik irekia zen biderei unibertsitatekoa ere gehitu behar zitzaiola garbi ikusi zuena. "Nahikoa da!" esan izan balu bezala, goi batxilergoko atepak prestatu zituen, une kritiko hartan "Nondik joko?" zalantzarri batean geunden batzuentzat. Eta Clementek, adorea eta ausardia erakutsi zuten gure gurasoen laguntzarekin, hezkuntza unibertsalerako aukera eskaini zigun.

Lopez-Canoren aurreneko lorpena Colegio San Joserentzat lege-errekonozimendua eskuratzea izan zen, 1961-1962 ikasturtean. Goi Batxilergoari 1965-66an heldu zitzaion ofizialtasunaren txanda. Urtebete lehena- go batxilergoko ziklo osoa amaitu genuen hogeita bi lagunek. Lehen promozioa zen, Arrasateetik unibertsita- terako bidea modu iraunkor- rrean ireki zuena.

Clementek gizonaren formazio integralean sinesten zuen eta batxilergo- ko klaseetatik aparte, Deustuko Unibertsitatearen aholkuaz baliatuta, ekono- mia, zuzenbide zibila, ingelesa eta kontabilitatearen oinarriko kontzeptuak ere estudiatu genituen, herriko profesional batzuen eskutik. A! Eta euskara ikasteari ere, Clementeri esker ekin genion batzuek, Estatu Batuetatik etorri

berria zen Yon Oñatibiare- kin hitz egin baitzuen eta haren irrati-metodoa erabili genuen gure hizkuntzan barrena egiteko. Eta irakas- lea? Alvaro Beitia. Oso oroitzapen onak ditut klase haietatik. Hamasei urteko mukizuek ginen artean!

Liburu horren egileak dioenez, Lopez-Canori buruz zurrumurruak ziren garai hartan Fraga Iribarneren taldekide ote zen. Liburueta- ko baieztapenak seriotasu- nez egiten dira, datuetan oinarrituta, ala hobe da isilik geratzea! Egia da Clementek Fragarekin lotura izan zuena; hain zuzen, gure irakasle ohia, "Tácito" kolektiboaren orbitan zegoena, Marcelino Oreja eta beste zenbait lagun Londresera gonbidatu zituen Fraga Iribarnek, Ingalaterra- ko hiriburuan enbaxadore zena, "Reforma Democráti- ca" deituko zen hausnarketa- taldea osatzeko. Hori 1974an gertatu zen. Hau da, Clemen- te Arrasateko ikastetxetik alde egin eta zortzi urtera!

Lopez-Cano lagun zintzoa dut nire hamaika urteetatik. Eta ohore handia izan da niretzat tarte luze honetan eskaini didan arreta. Irakasle bikaina gertatu zen eta gizon bezala ere aparta aritu da beti nirekiko. Hori, badakit, subjektibotasun- aren metroarekin neurtzea da, baina -hain zuzen horrexegatik atera nahi izan dut Clementeren izena zutabe hauetara- sentimen- duak isilpean gordetzerik ez dagoelako.

"Clemente Lopez- Canori esker izan ez balitz, auskalo non egongo ginen gutariko asko"

"Euskara ikasteari ere, Clementeri esker ekin genion batzuek"

Gora eta Behera



EMAKUMEEN ALDEKO JARDUNA

Joan den urtean sortu genuen Bergarako Emakume Kultur Elkarte. Emakumearen- dako eta emakumearentzat lan egin nahi duen elkarte da. Azkenaldian hitzaldi eta ekintza asko antolatu ditugu eta Bergarako emakumeon autoestimua lantzeko oso egokiak dira. Horrelako ekintzak beharrezko- ak dira gaur egungo gizartean.



IRAKEKO GERRA, ORAINDIK ERE

Ia urtebete pasa da Irakeko gerra hasi zela, baina oraindik ere jendeak hiltzen jarrai- tzen du. Teorian, gerra amaituta dago, baina hilketek jarraitu egiten dute. Badirudi ez dela inoiz gatazka

hori konponduko, eta hilketek gatazka areagotu egiten dute.



LOLI
CONDE
BEKE elkarte- ko presidentea

Koplak

Itoitzeko urtegia

Oraintxe nago penetan esaten dizut benetan irratiz entzun nuenean nik berri hori atzo bertan.

Gaur hamar urte hasi zen atzo bete zen hain zuzen sarraski hura kondenatzeko hitz egin dezagun ozen.

Jende mordo botata eurei gutxi inportata tristerik behar genuke denok herri bizi bat hil da ta.

Bertan dauzkagu paktuak edo eta kontratuak nola interesatzen duen bada diru madarikatuak.

Ze egoera krudela Ze egoera goibela azaldutzeko ondorengoei lehenago herri bat zela.

Egun daude toki anitz! baina zeu joan zara bortitz Zu ez zaitugu ahaztuko inoiz agur betirako Itoitz.

EÑAUT URIARTE

HURRENGO EZTABAIDAGAI

Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

Abertzaleak bat eginda aurkeztu beharko lirateke hauteskundeetan?

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Iratxe Bengoa, Arantzazu Arana
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Podiuma

Kirolabur

Jose Jabier Barkero | FUTBOLARIA |

OIHANA ELORZA

Beste bi urterako sinatu berri du aretxabaletarrak Realarekin. Domekan, ordea, bigarren partidua jokatuko du Almeriako Poli Ejido taldearekin. Aurreko norgehiagoka irabazi egin zuten. Zorte ona ekarri dio taldeari, eta zorte horri eutsi nahi dio. Hotelean harrapatu dugu.

Zer moduz joan da astea?

Ba egia esan, oso ondo. Oraindik ez dut astirik izan ingurua ezagutzeko, baina ondo.

Taldea ezagutu duzu?

Bai. Entrenatzailearekin asko hitz egin dut. Nik zer egitea nahi duen esan dit, nola egitea nahi duen... Oso kontentu nago, ondo hartu nau eta.

Hura ere pozik egongo da ezta? Zu etorri, eta Cadizi irabazi.

Bai, taldeari zorte ona ekarri diodala esan liteke. Nahiko nuke zorte horri eutsi, bai, horixe. Kalitate handia du taldeak. Ez dakit zergatik dagoen hain behean sailkapenean. Ea hemendik aurrera partidu gehiago irabazten ditugun.

Realak bezalaxe.

Hori da. Orain bigarren mailako sailkapenari egin beharko diot kasu, baina Realaren gora-beherak ere jarraituko ditut, bai, horixe. Igandean penalti bati esker irabazi zuen. Sasoi onean dabil, bai. Ea jardunaldi honetan Zaragoza menderatzen duen. Eta guk Terrassa, noski.

Zer moduz beste jokalariekin?

Primeran. Sekulako giroa aurkitu dut aldagelan. Oso harreman ona dute bata bestearekin, nabari da, eta hori oso ona da.

Andaluziarrak, orokorrean, nahiko hiztunak dira.

Bai, egia da hori. Hala ere, taldean ez daude andaluzak bakarrik. Badaude Katalunia, Amerika, Portugal eta Euskal Herriko jokalariek ere; esate baterako, Kike Burgos atezaina, Athletic eta Alaves taldeetan ibilitakoak.

Rivas kolonbiarra ere zue-nean dago.

Bai. Aste honetan etorri da hura ere. Elkarrekin etorri ginen. Ni Bilbotik eta hura Kolonbiatik, Madrilgo aireportuan elkartu ginen eta handik Almeriara hegazkin berean joan ginen.

Gainontzeko jokalariek ere ez ditut oraindik ezagutzen. Aste honetan izan dut harremana beraiekin, baina poliki-poliki ari naiz. Batzuk entzutez ezagutzen nituen, beste batzuk ikusi ere ikusi ditut noizbait, baina hemendik aurrera izango dut hobeto ezagutzeko aukera.

Tenerifera joango ote zinen ere entzun genuen.

Kontu hori Tenerife taldeak berak zabaldu du. Nik Poli Ejido taldearekin hitz egin dut hasie-



Poli Ejido taldean dabil erdilari aretxabaletarra.

GOIENKARIA

“Nik futbolekin jokatu nahi dut; talde honek hori eskaini dit, eta pozik nago”

“Zuhaitz Gurrutxagarekin Malagan elkartuko naiz, bion erdibidean dago”

Ile apaindegira, astero

Hotelean harrapatu dugu Barkero, eta bero egiten duela esan digu. “Udan bero handia egin zuen han eta aurre denboraldian ilea moztu nuen. Hemen sarritan moztuko dudala uste dut”, hasi da esaten.

Entrenamendu bakarra egin zuen taldearekin, baina hala ere gustura aritu zen. Taldeak irabazi egin zuen, gainera. Baina futbola ez beste dena oraindik hankaz gora duela esan digu. Astebete egin du Almerian, baina ez du herria eta ingurua ezagutzeko astirik hartu. Izan ere, “horrenbeste presarekin, ba ia ezer gabe etorri naiz hona. Gauza asko ditut oraindik ekartzeko, tartean autoa”.

Ejido Aretxabaleta baino askoz handiagoa da. 70.000 biztanle ditu, eta negutegiak bazter guztietan. “Euskal Herriarekin konparatuz, oso toki itsusia dela dirudi, hasieran behintzat, baina hona ez naiz paisaia ikustera etorri, futbolekin jokatzera baizik”, esan digu barrez. Beraz, argazki gutxi aterako ditu ziurrenik, baina hango marrubiak behintzat probatuko dituela gaineratu du: “Bai, fruta-zalea naiz, gainera, eta aukera hori aprobeztatuko dut, ez da aukera txarra”.

ratik, ez beste inorekin. Zuek bezalaxe enteratu nintzen ni ere Tenerifera joango ote nintzen zurrumurru horrekin, jendearekin batera.

Eta gustura zaude orain?

Bai, oso gustura. Talde honek jokatzeke aukera ematen dit. Entrenatzaileak berak nahi ninduen ni hemen eta askotan deitu dio Realari. Bestetik, nik ere futbolekin jokatu nahi dut, eta hasieratik gustatu zitzaidan talde honen eskaintza. Gainera, Tenerife taldea ez dago oso egoera ekonomiko onean.

Lehenengo partiduan minutu batzuk bakarrik jokatuz zenituen.

Bai, aldaketa baten ondorioz zelairatu nintzen, baina pozik nago. Campo Municipal futbol zelaira joan zirenek txalo egin zuten zelairatu nintzanean. Hori asko gustatu zitzaidan. Bazekiten berria nintzela eta harrera ona egin nahi zidaten.

Dena dela, hemendik aurrera gehiago jokatuko dudala uste dut. Hori nahi dut, behintzat, eta Julio Rubio Palomar entrenatzaileak ere nirekin gustura dagoela esan zidan partiduaren ostean; beraz, futbolekin arituko naizela uste dut.

24 urte dituzu. Hau zure laugarren taldea da.

Realaz gain Frantziako Tolosako taldean eta Eibarren ere ibili naiz, bai.

Orain Eibarren aurka jokatuz beharko duzu, ezta?

Bai. Martxoan jokatuko dugu Eibarren aurka. Eibarren gainera. Oso partidu garrantzitsua izango da niretzat. Baita berezia ere, noski. Lagun asko ditut han eta etxe ondoan egongo naiz.

Urruti dago Aretxabaleta hortik, ezta?

Astero joateko behintzat bai, urruntxo. Gutxi gorabehera 1.100 kilometro daude. Dena dela, hemendik Madrilera hegaldi asko daude eta handik Bilbora ere bai; beraz, moldatuko naiz.

Zuhaitz Gurrutxaga gertuago dago, Algecirasen.

Egunero elkartzeko urruti xamar dago hura ere, baina bai, dagoeneko telefonoz hitz egin dugu eta elkartzeko gara tartean behin. Ziurrenik Malagan elkartuko gara. Bion erdibidean dago, eta, hasiera baten, hantxe elkartzeko planak egin ditugu. Oraindik ez dugu erabaki noiz, baina elkartzeko gara.

Realean?

Hor seguru, baina lehenago ere bai. Nik beste sei hilabete egin behar ditut hemen, ekaina bukatuta arte, eta hori urruti ikusten ditut oraindik. Lehenago elkartu behar dugu.

Noiz etorriko zara Aretxabaletara?

Ba seguru asko, datorren astean. Traste asko ditut ekartzeko oraindik.

TXIRRINDULARITZA/OÑATI

Markel Irizar txirrindulari Oñatiarrak lehen proba egin du profesionalean. Mallorkako Itzulian ibili da aste honetan, txirrindularitzako egutegiako lehen itzuli garrantzitsuan. Uste baino askoz lasaiago egin zuen lehen etapa, eta gustura zegoen oñatiarra. Urtarrilean hasi zen profesionalean, Euskaltel Euskadi taldearekin sinatu ondoren. Mallorkako Itzuliaren ostean, Valentziako Itzulian eta Nazioarteko Kriteriumean parte hartu nahi du. Atzo, osteguna, 24 urte egin zituen Markelek.

FUTBOLA/DEBAGOIENA

Oñatiko Aloña Mendi taldea da ibarreko talderik onena, hogeita bigarren jardunaldia jokatuta. Oñatiarrak 36 puntu dituzte eta laugarren postuan daude. Postu bat beherago Mondra taldea dago. Bergara ere gora begira dabil, seigarrena da sailkapenean. Azkenik, Aretxabaletako UDA taldea bederatzigarren postuan dago. Hala ere, sei puntuko aldea baino ez daude Aloña Mendiren eta UDAREN artean. Maila horretako taldeen artean dagoen berdintasuna da gauza aipagarriena.

ESKUBALOIA/ARRASATE

Arrasateko AGR eskubaloi taldeak datorren martxoan hasiko du Euskadiko Txapelketako igoera fasea. Pitxi Herreroen mutilek hamar goleko aldearekin irabazi zion Leitzarani. AGRk azkar jokatu zuen eta erraz nagusitu zitzaion Andoaingo taldeari. Azkar jokatzeagatik, ordea, Arrasateko taldeak baloi asko galdu zituen erasoan, eta defentsa lanetan aurreko jardunaldietan baino hobeto ibili beharra dute.

GIMNASIA/BERGARA

Bergarako Ariznoako gimnastak nagusi izan ziren, zapatuan, Arrasateko Uarkape pilotalekuan jokatutako Gipuzkoako Txapelketako bigarren fasean. Taldeka, alebin, infantil eta gazte mailetan irabazi zuen Ariznoak. Arrasateko zazpi ordezkariak ere oso ondo aritu ziren. Gipuzkoa osotik etorritako 70 gimnasta izan ziren Uarkapen. Hilaren 14an, B mailako Gipuzkoako Txapelketako jardunaldia egingo da Uarkapen bertan.

BOCCIA/BERGARA

Aritz Bikuña bergararra Euskal Selektzioarekin lehiatuko da datorren martxoaren hasieran Asturiasen egingo den boccia lehiaketan. Aritz Debagoieneko ordezkari bakarra izango da. Hilabete barru izango da txapelketa garrantzitsua hori, eta gazte bergararrak gogor entrenatzen jarraitu beharko du, orain arte erakutsi duen mailari eutsi nahi badio, behintzat.

Gu bagara 'Asteleheneko Goienkaria'-ko harpidedun. Egin zaitez zu ere!



JOSE RAMON ELORTZA |
ELKARRIKO KIDEA,
ARRASATE

"Astelehenetan ez dugu egunkaria euskaraz irakurtzeko aukerarik eta hutsune hori beteko du honek. Bestetik, ez dut batere gaizki ikusten ordaindu beharra, akaso aldeko elkarte bat sortu beharko genuke".



KONTXI LASKURAIN |
ANELKARREKO KIDEA,
ANTZUOLA

"Jendea talde askotan eta saltsa askotan dabil eta hori erakustea beharrezkoa da. Gainera, bailara osoan egiten den lana ikusteko aukera ematen digu GOIENKARIAK. Jendearengana iristeko bide bat da".



IÑAKI ARTOLA |
JARDUN ELKARTEA,
BERGARA

"Oso garrantzitsua dela uste dut hurbileko notiziak euskaraz jasotzea. Gainera, *Asteleheneko Goienkaria* egubakoitzea hiltzen ez den jardunetara helduko da. Orain artekoaren osagarri izango da berria".



AMAIA KEREXETA |
LAIXAN ELKARTEA,
OÑATI

"Badakitt deportian orrialdiak argazkixari begiratu bat gaiñetik botata, irakurri barik geratuko diazela. Hala tabe, astuburutan pasaitten danaz enteraitteko ebakoitzera arte ez itxoi-ttia, ondo dau".



ASIER MUJIKA |
KIROL TEKNIKARIA,
ARETXABALETA

"Asteburuetan izaten diren kirol jardunaldien emaitzak, esaterako, egunean emango ditu *Asteleheneko Goienkariak*, zahartu baino lehen. Egubakoitzekoak duen hutsune hori beteko du berriak".

Asteakoak



Otsailaren 16an, kalean!

A tzo egin ziren *Asteleheneko Goienkaria* aurkezteko ekitaldiak Arrasaten eta Oñatin. Agintari politikoeekin batera, bi herriotako kultura, kirol eta gizarte taldeetako ordezkariak, udaletako langileak, dendariak eta abar izan ziren ekitaldian. Egitasmoa aurkezten, berriz, Goienako eta *Asteleheneko Goienkaria*-ko arduradunak: **Inazio Arregi** eta **Estepan Plazaola**, Goienako zuzendari nagusia eta presidentea hurrenez hurren, eta *Asteleheneko Goienkaria*-ren izenean, **Eneko Azkarate** zuzendaria eta **Monika Belastegi** erredaktore-burua. Oñatiko alkate **Andoni Gartzia** Oñatin eta **Ines Aldai** Arrasateko alkate-ordea Arrasaten ere izan ziren.

Hil honen 16an kaleratuko da *Asteleheneko Goienkaria*-ren lehenengo zenbakia. Lantaldea, baina, hasia da lanean. Esperientzia, gaitetasuna eta ilusioa. Hiru ezauzgarri horiek ditu erredakzio taldeak. Kazetari, argazkilaria eta maketagile guztiak debagoiendarrak dira, Monika Belastegi beragarra buru dutela.

Aurrera dezakegu lehen zenbakiak jorratuko dituen hainbat gai: 14an, zapatuan, Realak eta Athleticen jokatu duen derbia luze eta zabal jardungo dugu; era berean, zapatuan, San Valentin eguna izaki, Jardunek antolatzen duen amodiozko gutunen lehiaketako sari banaketa ekitaldiaren berri emango dugu; kronika zabala egingo dugu Los Suaves rock talde galiziarrek Jam aretoan eskainiko duen kontzertuaz; Gipuzkoako Txirrindulari Elkarteak Bergaran egingo duen batzar orokorraren berri ere emango dugu... Hilaren 16ko *Asteleheneko Goienkaria*-n, hori guztia eta beste gauza asko.

Erredakzio taldea hasi da lanean hilaren 16ko lehen zenbakia prestatzeko



GORKA ARIAS |
ANBOTO TABERNA,
ARAMAIO

"Niri oso ondo iruditzen zait *Asteleheneko Goienkaria* ateratzea. Honela, egubakoitzekoak zabal eta sakon lantzen ez dituenak landuko ditu berriak. Gure inguruko notiziak jakiteko beharrezkoa da".



JASONE MENDIZABAL |
TOPAGUNEKO KIDEA,
ARRASATE

"Ibarreko komunikazio sarrerako aurrera pausu garrantzitsua da eta, zalantzarik gabe, euskaldunontzat zerbitzu berri ikaragarri bat. Honekin gaurkotatzen irabaziko da, batez ere kirolean eta kulturaren".



JOSE INAZIO APRAIZ |
MASAJISTA,
ESKORIATZA

"Egubakoitzetan banatzen den GOIENKARIA doan jaso arren, ez dut bat ere arazorik ikusten *Asteleheneko Goienkaria* ordaintzeko. Hurbileko komunikabide bat da, denok eman dezakegu iritzia bertan".




DINA MUJIKAI |
ZINEGOTZIA (EA),
ANTZUOLA

"Herriko notiziez gain, ibarrekoak ere jakitea oso ona da eta nik badaikit Antzuolan irakurri egiten dela GOIENKARIA. Asteko agenda ere ekarriko du produktu berriak eta hori oso erabilgarria da".



ITZIAR ZABALA |
LANGILEA,
ELGETA

"Santamasetan banatu zen 0 zenbakia ikusi nuen eta gustatu zitzaidan. Orain ez dugu egubakoitzera itxoin behar asteburuko notiziak jakiteko, albiste freskoak jasoko ditugu. Eta gainera, euskaraz".



BIXENTE AZKARATE |
ERRETIRATUA,
ARRASATE

"GOIENKARIA beharrezkoa dela iruditzen zait. Nik neuk sarritan kolaboratu dut, argazki zaharrak eta eramanaz, eta *Asteleheneko Goienkaria* ere jaso nahi dut, noski. Euskal produktuen alde egin behar da".



OXEL EROSTARBE |
ZINEGOTZIA (ARALAR),
ELGETA

"Asteburuko kronika eta astean izango dugunarekin, euskarazko prentsak astelehenetan duen hutsunea beteko du. Egunkari arrotzak alde batera laga eta gure gurea den medioaren alde egin behar dugu".



MAIKA MUJIKAI |
IRAKASLEA,
BERGARA

"Herriko eta inguruko notiziak jakin nahi ditundalako egin naiz harpidedun. Munduko notiziak egunero jasotzen ditugu, baina hemengoak ere garrantzitsuak dira eta nik jaso egin nahi ditut".



JESUS IRIZAR |
DANTZARIA,
OÑATI

"Oso gauza positiboa dela uste dut. Norberaren herrikoaz gain, inguruko albisteak jakitea ere oso interesgarria da, jakin beharrezkoa. Kirola eta kulturaren ere, prentsan bezalaxe, ibar osoko zentzua falta da".



ARITZ BEISTEGI |
BANKUKO ZUZENDARIA,
BERGARA

"Egia da gaur egun informazio asko jasotzen dugula, alde eta bide guztietatik, baina herriko eta ibarreko albisteak jakitea beti da garrantzitsua. Gainera, euskaraz lan egiten duen egitasmo bat da".



EGIN TXOTX! sagardotegietan



Arratzain Arratzain Zahar baserria
Arratzain auzoa / USURBIL 943 58 09 74

- Urtarriletik maiatzera arte sagardotegia irekita
- Urte osoan erretegia
- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Lekua: 120 lagun, eserita edo zutik



Iparragirre Iparragirre baserria / HERNANI
943 55 03 28

- Zutik edo eserita
- Eguaztenetik zapatuta gauez bakarrik
- Zapatu eguerdietan zabalik
- Sagardoa botilan saltzen da
- Autobusak aparkatzeko tokia gordetzen dugu
- "Tolare" sagardotegia



Iturrieta Iturrieta baserria / Arraga auzoa
ARAMAIO / 945 44 53 85

- Urte guztian zabalik
- Sagardotegi garaian, sagardotegiko menua
- Etxeko sagardoa
- Ziburuak umeendako
- Bertako janaria
- 100 lagunendako lekua, eserita edo zutik



Ixaun Elosu auzoa / BERGARA
943 85 32 50

- Urte guztian zabalik
- Sagardotegiko menua
- Baserriko oilaskoa eta arkumea enkarguz
- Bertako janaria
- Martitzen eta eguaztenetan itxita
- 55 lagunendako lekua



Larre-Gain Larre-gain sagardotegia / HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Kazuelak (bakaillaoa saltsan eta tomatearekin), aurrez deituta
- Astegunetan, gauetan zabalik
- Aste bukaeran egun osoa zabalik
- Astelehen eta domeka gauean itxita
- "Tolare" sagardotegia



Otegi Solla Enea baserria / LASARTE
943 36 50 29

- Apiril erdialdera arte zabalik
- Bertako janaria.
- 150 lagunendako lekua, eserita.
- "Tolare" sagardotegia



Urbitarte Ergoien auzoa / ATAUN
943 18 01 19

- Janaria eraman daiteke
- Urte osoan sagardoa botilan salgai
- "Tolare" sagardotegia



Uxarte Montorra 6 / ZORNOTZA
94 630 88 15

- Bizkaiko sagardoa
- Asteburuetan urte osoan zabalik
- Astegunetan enkarguz
- Sagardotegiko menua
- 80 lagunendako lekua
- "Sagardaogintza"



Zabala Garagartza baserria / ADUNA / (Andoain eta Billabona artean) / 943 69 07 74

- Urtarriletik maiatz bukaerara arte zabalik.
- Zapatu eta domeka eguerdietan enkarguz bakarrik.
- Bertako janaria.
- 150 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- "Tolare" sagardotegia

Goienka2a

Egubakoitza / 2004ko otsailaren 6a

Kultura
eta
aisialdia



Otsailaren
6tik 13ra




Debagoiendar batzuk Laia Marull-ekin (ezkerretik lehenengo neska). Emakumezko aktore onenaren Goya irabazi zuen.

Aitor Arregiren taldean joandako debagoiendar bat Javier Bardem aktore ezagunarekin.



Julio Medem zuzendaria (irudian, ezkerrean) izan zen protagonistetako bat gau hartan.



Aitor Arregi zuzendari oñatiarra, Goya sari banaketa ekitaldiko momentu batean.

IZAN ZITEKEEN, BAINA... AITOR ARREGI OÑATIARRA, GOYA SARIAREN ATARIAN

Eta saria honakoarendako da... Joan den zapatuan, esaldi hori behin eta berriz esan zuten Espainiako Zinema Akademiaren Goya sari banaketa ekitaldian. Kasu batean, ordea, esaldi horrek harrak esnatu zituen hainbat debagoiendarren sabeletan. Izan ere, Aitor Arregi oñatiarrak zuzendari tekniko lanak egin zituen *Glup* filman, eta animaziozko film luze onenaren sarirako izendatuta zegoen. Hantxe egon zen Aitor, *Glup* egiten eta ekoizten ibili diren beste guztiekin batera.



Azkenean, Goya sari hori beste batengana joan zen, baina esperientzia sari banaketa ekitaldian gertatutakoa baino askoz harantzago joan zen Aitor era bere lagun eta lankideondako. Julio Medemi animuak eman, aktore ezagunak ikusi, ekitaldiko giro dotoreaz gozatu, Madrilen turista gisan ibili... Hori guztia egin zuten debagoiendarrok han. Goya saririk ez, baina bizipen bikainak sakelan etorri da Aitor Arregi. /14

LEIRE KORTABARRIA
ARGAZKIAK: OSKAR TEJEDOR

ZINEMA/ OÑATIAK BAT GOYA SARIETARAKO IZENDATUTA EGON DA

AITOR ARREGI, ZINEMA ZUZENDARI TEKNIKOA

“Aukera gutxi genituen Goya irabazteko, baina oso pozik nago lortu dugunarekin”

L. KORTABARRIA / A. ARANBURUZABALA

Estatuko zinemako sari garrantzitsuenerako izendatuta egotea, 26 urterekin eta jardunean hasi eta bi urte bakarrik pasatuta, garaipen bat da dagoeneko. Aitor Arregi (Oñati, 1977) pozik dago esperientzia honen ondoren. Arrasate Irratia eta GOIENKARIA berarekin egon ziren.

Itxaropena ez da sekula galtzen. Zuk zelan ikusten zenuen *Glup* zuen filma?

Zurumurraren arabera, beste batzuek zituzten irabazteko aukera handienak, eta hala gertatu zen. Nik neuk ere hala uste nuen, arrazoi askogatik: beste lanak teknikoki oso onak ziren, aurrekontu handiak zituzten eta ekoizpen etxe garrantzitsuak zituzten atzetik. Aukera gutxi genituen guk, eta horregatik, nahiko lasai geunden. Ez irabaztea ez zen kolpea izan.

***El Cid* filmak saria merezi zuela uste duzu?**

Ikusi nuen eta oso ondo egin da dago. Hariari dagokionez, batzuetan korapilatsu samarra da, baina filma, oro har, oso ondo dago eta argi zegoen horren eta beste baten artean egongo zela Goya. Lanon maila orokorra oso altua zen.

Zelakoa izan zen sari ekitaldian egotea eta hautagaiak izatea? Inpresio handia egin zizun?

Hautagai guztion izena esan zuten unean, orduan bai, harrak sentitu nituen urdailean. Izan ere, gure saila -animaziozko film onenaren saria- hiru etenaldiren ondoren iritsi zen; gure aurretik, etenaldi bat eta beste sari bat zeuden, eta orduan urduri jarri nintzen, bai. Baina nik uste baino lasaiago egon nintzen. Hori eta ekitaldira iritsi ginen unea izan ziren larritasun handienekoak, orduan konturatu nintzen eta benetan non geunden.

Pentsatuta zenuten irabazten bazenuten zer esan?

Buruan neuzkan izen batzuk, eta horiek esatea nuen pentsatuta: familiari, lagunei, lankideoi, neskalagunari... eskerrak ematea, eta saria eskaintzea. Izan ere, ikusi nuen gure aurrekoek horixe egiten zutela.

Etxekoek eta lagunak zer esan dizute?

Etxekoak ni baino urduria go zeuden zapatu gauean. Baina, tira, guztiak pozik geratu dira eta zoriondu egin naute izendapen honegatik. Gu geu ere oso pozik



OSKAR TEJEDOR

Aitor Arregi Goya sari banaketan egon zen urtarrilaren 31n. Argazkian, bere atzean, Hector Alterio aktore argentinarra.

“Lasai egon nintzen ekitaldian. Hautagaiok aipatu gintuzten unea izan zen txarrena”

“Julio Medem albotik pasa zenean animuak eman nizkion, eta eskertu egin zuen”

“Komedia bat da nire hurrengo proiektua, eta horren haria idazten dihardut”

Dotore oso, baina konketatik edaten

Seriotasuneko uneak, urduritasun handikoak... egon ziren, baina, ekitaldi hauetan guztiotan gertatzen den moduan, anekdotak ere egon ziren joan den zapatuko jaialdian.

Guztien ahotan egon zen ekitaldian bertan ez zutela edateko ezer ipini, nahiz eta ekitaldi luzea izan. “Hiru ordu luze iraun zuen, eta horren falta sumatu genuen. Barregarria zen komunean etiketatuz jantzitako hainbeste jende ikustea, guztiak konketatik ura edaten”, diosku Aitorrek. Egardia eta gosea ondo asetzeko parada izan zuten sari banaketaren ondorengoko jaialdian.

Jaialdian, giro jatorra izan zen nagusi, eta horrek kontraste handia egin zuen sari banaketa

ekitaldiarekin. Han, seriotasuna eta etiketa izan ziren nagusi. “Gonbidapenean esaten zen derri-gorrezkoa zela etiketa janztea. Gero, hainbat saritu bakerotan eta igo ziren, baina bueno, jendea oso dotore joan zen”, gogoratzen du Aitorrek.

Berak hainbat aktore ospetsu ikusi zituen, eta dio: “Telebistan, inpresio handiagoa ematen dute. Gertutik ikusita, inpresioa ez da hain handia”. Beste edonor bezalako pertsonak direla, bada, aktore ezagunak; horren adibide, Laia Marull (*Te doy mis ojos* filmeko aktore sariduna) eta Javier Bardem antzezleek debagoiendarrokin atera zituzten argazki politikak.

gaude. Madrilera aitzakia horrekin joan ginen, eta turista moduan ibili ginen. 11 lagun joan ginen eta primeran pasa genuen, bai hirian, bai eta sari banaketa ekitaldi ondorengoko festan.

Zinema giroko jende ospetsu asko egon zen. Zuen taldeko batzuek argazkia eta guzti atera dute hainbatekin! Inorekin egin zenuen berba?

Urrunetik ikusi nituen Iciar Bollain zuzendaria, Luis Tosar eta Javier Bardem aktoreak... Baina nik neuk ez nuen eurekin berba egin.

Beste izen propio bat Julio Medemena izan zen.

Medemen aurkako bilkura zegoen sari banaketa egoitzaren aurrean, eta adierazpen askatasunaren aldekoa, horren parean, eta tentsio handiko egoera zen, bai. Gero, Julio Medem bera iritsi zenean, kazetari guztiak harengana joan ziren, agerraldi batekoak zein besteok oihuka hasi ziren... Albotik pasa zenean, animuak eman nizkion, eta bistan zen horrelako adierazpen guztiak eskertzen zituela.

Ekitaldiko tonua eta giroa zer iruditu zitzaizkizun?

Harritu egin ninduen adierazpen askatasunaren aldeko jarrerak; izan ere, pentsatzen nuen askoz neutralagoa izango zela. Iaz bezain argi ez, baina Iciar Bollain, Mercedes Sampietro edo Luis Tosarrek hainbat kritika egin zituzten.

Zuek ere euskaldunak zinetela eta, gaizkiulerturen bat egongo zen beldur zinen?

Burutik pasa zitzaigun, zinema eta politika nahasten ziren, eta... Baina azkenean pentsatu genuen irabazten bagenuen, saria jaso eta eskerrak emango genituela, besterik gabe.

***Te doy mis ojos* filma izan zen irabazle nagusia. Zer iruditzen zaizu?**

Asko gustatu zait filma, eta merezi zuen irabaztea. Gainera, Pasaiaiko lagun batek mikrofono arduradun moduan egin zuen lan film horretan, eta asko poztu ginen.

Bueno, orain Goyaren kontuak pasa dira. Zein proiektu dituzu esku artean?

Film baterako haria idazten nabil; izan ere, Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza bat eman digu horretarako eta beste hainbat proiektutarako ere. Film luzea izango da, komedia bat, eta herrixka batera pertsonaia berri bat iristen denean sortzen diren bizipenak dira ardatz nagusia.

MUSIKA/ JAM ARETOKO KONTZERTUAK

The Misfits taldea bihar Bergaran

JAM ARETOKO KONTZERTU DENBORALDI BERRIARI HASIERA EMANGO DIOTE THE MISFITS, THE VIETCONGS ETA THEE TUMBITAS TALDEEK

USOA AGIRRE

Bihar, otsailak 7, emango zaio hasiera Bergarako Jam aretoko kontzertu denboraldi berriari. Hasteko, The Misfits talde estatubatuarra izango da bihar gauean Jam-en, gaueko 22:00etan hasita. The Misfits-en aurretik joko dute The Vietcongs eta Thee Tumbitas talde espainiarrek.

Kontzertu indartsua antolatu dute Jam-eko denboraldi berriari hasiera emateko. The Misfits taldearen punk-rock musika entzuteko aukera izango da zapatuan. Taldearen azken lana aurkeztuko dute: *Project 1950*. Lan horretan 50eko hamarkadako rock talde klasikoaren punk bertsioak egin dituzte, taldearen 25. urteurrena ospatzeko.

The Misfits-en aurretik, ordea, The Vietcongs eta Thee Tumbitas taldeek joko dute. The Misfits-ek Espainian emango dituen kon-

tzertu guztietan joko du The Vietcongs taldeak beraiekin. Thee Tumbitas izango da kontzertuko talde gonbidatua. Talde horrek bluesa, punka eta 50eko hamarkadako rock-and-rollea bateratzen ditu.

LOS SUAVES HURRENGO ZAPATUAN

Datozen asteotan ere kontzertu ugari izango dira Bergarako Jam aretoan. Datorren zapatuan, hilak 14, Los Suaves talde galziarrak joko du. Domekan, berriz, Sick Of It All, Most Precious Blood eta Bleeding Through taldeek joko dute. Hilabeteari amaiera emateko beste bi kontzertu izango dira: Michael Schenker Group otsailaren 27an eta Morbid Angel hilaren 29an.

Martxotik aurrera honako talde hauek joko dute, besteak beste: Hollidays In The Prison, Claude Young, The Gathering, Iced Earth, Desmond Dekker, Doctor Deseo eta Fito y Fitipaldis-ek.



Jerry Only, Marky Ramone eta Dez Cadena, The Misfits taldekoak.

Mundu propioa

New Jerseyko Lodi herrian jaio zen The Misfits taldea, 1977ko apirilean. Sortu zenetik, jatorrizko punk rocka egin du taldeak, 50eko hamarkadako rock-and-rollean oinarritutako melodiarekin bat eginda.

70eko Hardcore taldeetatik bereiztea lortu dute, eta mundu propioa sortu; beldurrezko pelikuletako diseinuak erabiltzen hasi ziren eta taldea beltzez janzten hasi zen, orrazkera eta makillaje beldurgarriekin.

23 bat lan kaleratu dituzte eta arrakasta handia lortu dute mundu osoan.

BIDEO EMANALDIAK/ ROCK TALDEAK

Talde mitikoak gaztelekuan

USOA AGIRRE

Oñatiko gaztelekuan bideo eta DVD emanaldiak izango dira eguenero. Emanaldi guztiak rockaren ingurukoak izango dira. AC/DC taldea izango da hurrengo protagonista.

Otsailean hasita, bideo eta DVD emanaldiak antolatzen hasi dira Oñatiko gaztelekuan; eguenero izango dira emanaldiak. Atzo, hilak 5, izan zen lehenengoa; gaz-

telekura inguratu zirenek The Clash taldearen gaineko dokumentala ikusteko aukera izan zuten.

TALDE MITIKOAK

Datorren egunean izango da bigarren emanaldia. AC/DC taldearen *Let there be rock* bideoa emango dute; talde australiarrek 1977an egindako zuzeneko emanaldia jasotzen du bideoak. Otsailaren 19an, *The Greatest Punk* izeneko bideoa izango da ikusgai gaztele-

kuan; punk musikaren inguruko bideoklip mordoak biltzen du lan horrek. Otsailaren 26an izango da hileko azken emanaldia. Sex Pistols taldearen gaineko dokumentala emango dute; 70eko hamarkadan Ingalaterrako gizartea eskandalizatu zuen punk taldea izango da protagonista hileko azken ostegunean.

Emanaldi guztiak Oñatiko gaztelekuko sotoan izango dira, gaueko 22:00etatik aurrera. Sarrera doan izango da.

M
MEMESA SL

Industri hornidurak

943 71 24 25

**Carrión
música, s.a.**

- Gitarak, baxuak, anplifikadoreak, teklatuak, soinu ekipamenduak.
- Pianoak eta trikitixak errentan hartzeko aukera, eta erosteko.

Manuel Iradier 20 / Dato 42
Tel.: 945 23 07 49
GASTEIZ

ESKIATZERA!



Martxoaren 6an eta 7an
DEBAGOIENETIK
eskiatzera Astunera

114
euro pertsonako

Prezioan barne: Autobusa, bi egunetako erremontek, bi egunetako eskiatzeko pistetako aseguruua, Jacan gau bat, pentsio erdia, garraio aseguruua

IRTEERAK:

ESKORIATZA 05:00etan (Aketia autobus geltokian)
ARETXABALETA 05:10ean (Azbe autobus geltokian)
ARRASATE 05:15ean (Garibaiko autobus geltokian)
BERGARA 05:30ean (Ibargaraiko autobus geltokian)

Viajes Eroski
Bidaiak

Grupo Eroski

Kalitatea Bermatuta

EROSKI

bai

eskaintza gehiago www.viajeseroski.es

Otsailak 6-13

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

DEIAK

ARAMAIO

► **Una mente maravillosa** filmaren emanaldia egongo da datorren egubakoitzean, hilak 13, kultura etxean, 22:30ean. Sarrera euro bat kostatuko da.

► **Gazte lokaletan** parte hartu gura dutenek otsailean eman beharko dute izena Udaletxean. 14-20 urte bitartekoek erabili ahal izango dute lokala.

► **Aratusteetako mozorro lehiaketan** parte hartu gura dutenek izena eman beharko dute otsailaren 11n, azken egunez. Lehiaketa bera 21ean izango da.

ARETXABALETA

► **Euskal Herriko sorginen** gaineko hitzaldia egingo du Alizia Stürtze historialariak egunean, otsailak 11, Udaletxe Zaharrean, 19:00etan.

► **Tibet bizikletaz** diapositiba emanaldia egongo da hilaren 12an, eguena, Udaletxe Zaharrean, 19:00etan.

ARRASATE

► **Gazte Astea** deitu du Gazte Kontseiluak. Gaur, egubakoitza, ume eta gaztetxoek margotutako panelen erakusketa egongo da, 17:00etan; txistorra eta sagardo jana, 17:30ean, biak Herriko Plazan; eta perkusio kalejira, 19:00etan.

► **Helduen Hezkuntza Ikastetxeak** matrikula epea zabaldu du. Argibideetarako, deitu 943 77 11 72 telefonora.

► **Sexologia eta argazkilaritza** erakusketarako bisita gidatuak antolatu ditu Sexologia Zerbitzuak hilaren 11n (erretiratuendako) eta 18an (emakumeendako). Argibideetarako, jo Sexologia Zerbitzura edo deitu 943 79 80 10 telefonora.

► **Emakumeon azokan** parte hartzeko izenemate epea zabaldu da. Horretarako, deitu 943 79 41 39 zenbakira.

BERGARA

► **Bertso afaria** egongo da bihar, zapatua, Artatse elkarteak, 21:00etan, Maialen Lujanbio eta Estitxu Eizagirre-

rekin. 20 euro kostatuko da; 12, langabe eta ikasleendako. Sarrerak salgai daude Arranon, Pol-Polen eta Korta Zaharren.

► **Adoleszentzia** delako hitzaldia egingo du Xabier Tapia psikologoak hilaren 9an, astelehena, Mariaren Lagundia ikastolan, 18:00etan.

► **Odol-ateratzeak** egongo dira eguaztenean, otsailak 11, Seminarioan, 18:30ean.

OÑATI

► **Euskal kulturaren astea** antolatu du Oñatiko Herri Eskolak, eta hainbat ekitaldi egongo dira. Hilaren 10ean, Alhambra giltza filmaren emanaldia egongo da kultura etxeko zinema aretoan, 18:00etan; sarrera doan izango da. Hilaren 12an, eguena, Oñatiko kobazuloen inguruko hitzaldia eta diorama emanaldia egongo dira, Institutuko aretoan, 18:00etan, Oñatiko Natura Eskolaren eskutik. Azkenik, hilaren 15ean, kobazulo batera irteera egingo dute. Autobusa antolatu dute horretarako. Doan izango da. Argibideetarako, jo Herri Eskolara. Ekintza hauek parte hartu gura duten herritar guztioi daude zabalik.

► **Nafarroa Euskal Herriaren Estatu historikoa ote?** hitzaldia egingo du Nabarralde elkarteak martitzenean, hilak 10, kultura etxean, 19:00etan, Elkar Hezi ikastetxeko 2. Batxilergoko ikasleek antolatuta.

► **Baloretan hezi. Badakigu gure seme-alaben sentimenduak interpretatzen?** hitzaldia egingo du Hilario Garrudo psikologo eta terapeutak hilaren 9an, astelehena, eta 11n, eguaztena, Txantxiku Ikastolan, 18:30ean. Umezaintza zerbitzua egongo da.

► **Inteligentzia emozionala** berbaldia egingo dute egunean, hilak 12, Santa Eskolastika ikastetxean, 19:00etan. Elkar Hezi ikastetxeko Guraso Elkarteak antolatutako hitzaldia duzue.

► **Odol-ateratzeak** egongo dira datorren egubakoitzean, hilak 13, Txantxiku ikastolan, 18:00-20:00.

► **AC/DC taldearen Let there be rock** emanaldiaren bideoa eskainiko dute datorren egunean, hilak 12, gaztelekuan, 22:00etan.

MUSIKA

ARRASATE

► **Musikene orkestrak** kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Amaia Udal Antzokian, 20:00etan.

► **Jodete, Emboscada eta Never surrender** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, Gesalibarren, 22:00etan.

BERGARA

► **Roberto Antonello** organo jotzailearen kontzertua egongo da bihar, zapatua, San Pedro parrokian, 20:00etan.

► **The Misfits, Thee Tumbitas eta The Vietcons** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Fly shit** taldearen emanaldia egongo da etzi, gaztetxean, 20:00etan.

ESKORIATZA

► **Tehelukas prest eta 4Lau** taldeek emanaldia egingo dute datorren egubakoitzean, hilak 13, Inkernu tabernan, 23:00etan.

IKASTARROAK

ARRASATE

► **Emakume Txokoak** honako ikastaroak antolatu ditu: yoga, autoestimua, antzerkia, arte dekoratiboa, musikoterapia, dantza afro-brasilarrak, emakumea eta mitologia, salta, eta tailer libreak. Otsailaren 16an hasiko dira guztiak. Izena emateko, jo euren egoitzara (Uarkape frontoiaren atzeko aldean) edo deitu 943 79 41 39 telefonora, 16:00etatik 20:00etara.

ESKORIATZA

► **KZGuneak hainbat ikastaro** deitu ditu otsailean: bat-bateko mezularitza, Internet, Kutxa eta kateak sintonizatze-ko ikastaroak, hain zuzen ere. Guztiak doan izango dira. Izena emateko, jo Konekta Zaitetz gelara, kultura etxean.

OÑATI

► **Kirol ekintza, mekanizazio eta makineriaren mantentze-lan** arloetako ikastaro bana deitu du Institutuak. Helduendako ikastaroak

dira. Martxoan irekiko da matrikulazio epea, baina informazio telefono bat egokitu dute: 943 78 21 50.

JAIK

ANTZUOLA

► **San Blas** eguneko ospakizunak egingo dituzte bihar, zapatua, Basalde auzoan, 12:00etan.

► **Santa Ageda** ospakizunak egingo dituzte etzi, domeka, Galartza auzoan. Kanpaiak eta suzuri jaurtiketa egingo dute, 11:45ean. Gero, meza egongo da, Santa Ageda ermitan, 12:15ean; eta salda eta pintxo jana, 12:45ean.

ARRASATE

► **Gesalibar** auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Gaur, egubakoitza, bertso afaria egingo dute Jentil-Olan, Lizaso eta Egañarekin. Bihar, zapatua, umeendako jolasak, 11:00etan; meza, 12:00etan; koplak emanaldia etxerik etxe, eguerdian; eta afaria eta erromeria egongo dira. 22:00etan, rock emanaldia. Etzi, domeka, meza eta Garagartz-



► MUSIKA

BETIZU TALDEAK ARRASATEN JOKO DU, ARIZMENDIREN ESKUTIK

Debagoieneko ume eta gaztetxo guztiek Betizu Klubaren eskutik abestu eta dantza egiteko aukera izango dute bihar, zapatua, otsailak 7. Arrasateko Uarkape pilotalekuan izango dute Betizu taldeko lagunekin hitzordua, 17:30ean. Ekitaldia Arizmendi ikastolak antolatu du, eta sarrerak salgai daude dagoeneko, aldeztu aurretiko salmentan. Hona hemen non eros ditzakezuen: Arizmendi ikastolako gune guztietan; Arrasateko Uarkape frontoiko txarteldegian (gaur, egubakoitza, 18:00etatik 19:00etara); eta Aretxabaleta eta Eskoriatzako liburutegi eta ludoteketan. Bihar, zapatua, txarteldegian egongo dira salgai, 16:00etatik aurrera.

Non: Arrasateko Uarkape pilotalekuan. **Noiz:** otsailaren 7an, zapatua. **Ordua:** 17:30ean. **Sarrera:** 4 euro.



GANESHA

Klinika laguntzailea Laborategi klinikoak
Esperientziaduna • Higienea %100

San Valentín egunean...

Esaiozu
Tatuaje
batekin!

Mentxu, 943 71 18 24
Olarre kalea 43 bis • ARRASATE



SANTA AGEDA JAIK ETA KOPLA KANTALDIK DEBAGOIENEAN

Santa Ageda eguna otsailaren 5a izan arren, haren omenezko ospakizunek aurrera jarraituko dute asteburuan Debagoienez. Hainbat auzotako jaiak dira: esaterako, Arrasateko Gesalibarkoak eta Antzuolako Galartzakoak. Bi auzoetan jaiak eta denetarik ekitaldiak izango dira nagusi asteburuan; eta, nola ez, kopia kantari ibiliko dira auzotarrak eta horretarako inguratutako abesbatzak.

Zinema

ko abesbatzaren emanaldia egongo dira, 12:00etan, eta auzokoendako luntxa, segidan.

BERGARA

► **San Blas jaiak** ospatuko dituzte asteburuan Murinondo auzoan. Gaur, egubakoitza, etxafuegoak jaurtiko dituzte, 20:00etan; 20:30ean, auzo afaria eta erromeria egongo dituzte. Bihar, zapatua, mus txapelketa jokatu dute. Izena ematea 15:30ean hasiko da, eta bikote bakoitzak 12 euro ordaindu beharko ditu. Etzi, domeka, San Blas Txiki eguna izango da; 11:00etan, meza nagusia eta salda jana egongo dira; 11:30ean, dantzaldia; segidan, herri kirolak eta kukainak egongo dira.

ESKORIATZA

► **Kintoek** dantzaldia egongo dute etzi, domeka, Herriko Plazan, 19:00etan.

OÑATI

► **Santa Eskolastika jaialdia** egongo da datorren egubakoitzean, hilak 13, Santa Eskolastika ikastetxeko areto nagusian, 18:30ean. Datorren zapatuan, hilak 14, berriro egongo dute, 17:00etan. Abesti, antzerki eta dantza emanaldiak egongo dituzte ikasleok.

ANTZERKIA

ARRASATE

► **Ya te digo** ikuskizuna egongo du Torpedolevel taldeak gaur, egubakoitza, Aterpe tabernan, 00:00etan.

OÑATI

► **Marsel magoaren emanaldia** egongo da bihar, zapatua, Santa Ana aretoan, 18:00etan. Sarrera doan izango da. Oñatiko Herri Eskolaren euskal kulturaren astearren barne dago ekintza hau.

LEHIAKETAK

ARAMAIO

► **Txirritola Ipuin Lehiaketa** deitu du Txirritola euskara elkarteak. Parte hartu gura dutenek hilaren 18a baino lehen eraman beharko dituzte ipuinok liburutegira.

ERAKUSKETAK

OÑATI

► **Egur eta harri lanen** erakusketa egongo da kultura etxean hilaren 12tik 22ra, eta bisita ordutegia honakoa da: 18:30etik 20:30era. Egurrezko lanak Iñaki Gerekarenak dira; harrizkoak, Ireilu Taldearenak.

ARRASATE

■ AMAIA ANTZOKIA

Noviembre
Egubakoitza, hilak 6, zine kluba: 20:30.

Looney tunes
Domeka: 17:00.

Master and commander
Domeka: 19:00, 22:00.
Astelehena: 20:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

BERGARA

■ NOVEDADES

Todo lo demás
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

Looney tunes
Zapatua eta domeka: 17:00.

Respiro
Eguena, zine-kluba: 20:00.

OÑATI

■ OÑATIKO ZINEMA

Los impostores
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Looney tunes
Zapatua eta domeka: 17:00.

In this world
Eguena, zine-kluba: 20:00.

Alhambako giltza
Martitzena: 18:00.
Sarrera, doan.
Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ UNZAGA

La mansión encantada
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

■ RIALTO

Pegado a ti
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ

■ GURIDI

21 gramos
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

Bahía mágica
Egubakoitzetik domekara: 17:00.

Matar a un rey
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

El jurado
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

La sonrisa de Mona Lisa
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

La mansión encantada
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

Te doy mis ojos
Egunero: 20:00, 22:30.

Pegado a ti
Egunero: 17:30.

Bon voyage
Egubakoitzetik domekara: 19:45, 22:30.

■ MIKELDI ZINEMAK

La mansión encantada
17:15, 20:00, 22:30.

El señor de los anillos 3: el retorno del rey
Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:35.

Bajo el sol de la Toscana
17:15, 20:00, 22:30.

El último samurai
16:45, 19:45, 22:45.

21 gramos
17:15, 20:00, 22:30.

Paycheck
17:05, 19:50, 22:35.

La sonrisa de Mona Lisa
17:30, 20:15, 22:45.

Titus
Egubakoitza: 16:45, 10:45, 22:45.
Zapatua eta domeka: 19:45, 22:45.

El tesoro del Amazonas
17:30, 20:15, 22:45.

Buscando a Nemo
17:00.
Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

Thirteen
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

Todo o nada
Egunero: 22:30.

La vida que te espera
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

En carne viva
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

El señor de los anillos 3: el retorno del rey
Egunero: 17:30.

El último samurai
Egubakoitza: 19:15, 22:30.
Zapatua: 16:30, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.

Zatoichi

Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Casa de arena y niebla
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

■ ABACO-LAKUA ZINEMAK

Buscando a Nemo
16:15, 18:15.

El jurado
17:00, 19:30, 22:15, 01:00.

Trileros
16:30, 19:30, 22:00, 00:30.

El tesoro del Amazonas
17:00, 19:45.

Master and commander
22:00, 01:00.

El último samurai
16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Paycheck
17:00, 20:00, 22:30, 01:00.

Pegado a ti
16:30, 19:30, 22:00, 00:30.

El señor de los anillos 3: el retorno del rey
20:30, 00:15.

La sonrisa de Mona Lisa
17:00, 19:45, 22:15, 00:45.

Matar a un rey
16:00, 18:05, 20:15, 22:30, 00:45.

Gauerdiko saioak, bakarrik egubakoitza eta zapatuan.
Eguaztrena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX-GORBEIA

El señor de los anillos 3: el retorno del rey
Egubakoitza eta zapatua: 15:40, 19:40, 23:40.

Domeka: 12:15, 17:05, 21:00.

La casa
12:15, 15:55, 18:10, 20:25, 22:40, 00:55.

El jurado
12:15, 16:45, 19:15, 22:15, 00:45.

Seabiscuit

12:15, 16:00, 18:45, 21:30, 00:30.

Matar a un rey
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Looney tunes
12:15, 15:40, 17:40.

La sonrisa de Mona Lisa
20:25, 22:35, 00:50.

El último samurai
12:15, 15:35, 18:35, 21:35, 00:35.

Las chicas del calendario
20:35, 22:40, 00:50.

Buscando a Nemo
12:15, 15:45, 18:00.

Pegado a ti
12:15, 15:35, 17:50, 20:05, 22:20, 00:50.

Master and commander
19:20, 22:00, 00:45.

El Cid, la leyenda
12:15, 16:00, 17:40.

La mansión encantada
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Trileros
20:15, 22:20, 00:25.

Los Reyes Magos
12:15, 16:40, 18:25.

Paycheck
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

El tesoro del Amazonas
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

Gauerdiko saioak, bakarrik egubakoitza eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, bakarrik domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna.

■ ABACO BOULEVARD

La mansión encantada
12:20, 16:10, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

El tesoro del Amazonas

12:00, 16:00, 19:00.

Pegado a ti
12:10, 16:20, 19:25, 22:00, 00:30.

Casa de arena y niebla
12:00, 16:30, 19:15, 22:10, 00:45.

La sonrisa de Mona Lisa
12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:45.

La casa
12:20, 17:20, 19:45, 22:15, 00:45.

El último samurai
12:30, 16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

Las chicas del calendario
Egubakoitza: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:05.
Zapatua: 18:15, 20:30, 22:45, 01:05.
